

ARRASATEKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK EMATEA ETA KUDEATZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA	ORDENANZA REGULADORA DE CONCESIÓN Y GESTIÓN DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE
ZIOEN AZALPENA	EXPOSICIÓN DE MOTIVOS
Dirulaguntzen bitartez bideratzen da sektore publikoaren finantza-jardueraren parte handi bat, erakunde publiko zein pribatuen eskaera sozial eta ekonomikoak asetzeko, finantza-sostenguari bidez.	Una parte importante de la actividad financiera del sector público se canaliza a través de subvenciones, con el objeto de dar respuesta, con medidas de apoyo financiero, a demandas sociales y económicas y entidades públicas o privadas.
Arrasateko Udalean, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak toki-erakunde gisa ematen dizkion eskumenez baliatzeko, berebiziko garrantzia du sustapen-jarduerak, eta dirulaguntzak emanez bideratzen da batez ere.	En el Ayuntamiento de Arrasate, para el ejercicio de las competencias que la Ley 2/2016 de 7 de abril le confiere como entidad local, la actividad de fomento tiene una importancia capital, y se canaliza fundamentalmente, a través del otorgamiento de las subvenciones.
Ekonomiaren ikuspegitik, gastu publikoaren atal garrantzitsua dira dirulaguntzak, eta, honenbestez, bat etorri behar dute aurrekontu-politikaren gidalerroekin.	Desde la perspectiva económica, las subvenciones son una modalidad importante de gasto público y por tanto, deben ajustarse a las directrices de la política presupuestaria.
Administrazioaren ikuspegitik, berriz, interes orokorreko zat jotzen diren zenbait jokabide bultzatzeko teknika bat dira dirulaguntzak, baita interes publikoko jarduerak kudeatzearen administrazio publikoaren eta partikularren artean lankidetzan aritzeko prozedura bat ere.	Desde una perspectiva administrativa, las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos considerados de interés general e incluso un procedimiento de colaboración entre la Administración pública y los particulares para la gestión de actividades de interés público.
Diru bidez ematen den laguntza publikoa da Ordenantza Orokor honen ardatza, hura baita arreta arautzailearen premiarik handiena duen laguntza-mota. Beharrezko arauak ezarri behar dira, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko, eta, aldi berean, izaera publikoa dela eta dirulaguntza horiei dagokien kontrola eta gardentasuna areagotu behar dira.	Esta Ordenanza General se centra en la ayuda pública que se otorga bajo la forma de entrega dineraria o pecuniaria que es la figura que más necesita de una atención reguladora, estableciendo las reglas oportunas, con el fin de conseguir una mayor eficacia y eficiencia, potenciando simultáneamente el control y transparencia que el carácter de públicas confiere a este tipo de ayudas económicas.
Komeni da, bestalde, irizpide homogeenok ezartzea, laguntza horiek izapidetu eta justifikatzeko eta, aldi berean, udal-sailen egiaztatze-lana eta dirulaguntzaren xedea betearazteko jarduketak errazteko.	Por otra parte, es conveniente y necesario establecer criterios homogéneos en su tramitación y justificación y al mismo tiempo, facilitar la tarea de comprobación que hacen los correspondientes departamentos municipales y la propia Intervención para el cumplimiento de la finalidad de la subvención.

Horrenbestez, hauxe da Ordenantza Orokor honen xedea: Arrasateko Udalaren dirulaguntzak banatzeko jarduera oro kokatzea.	Es objeto, pues, de la presente Ordenanza General, enmarcar toda la actividad subvencionada del Ayuntamiento de Arrasate.
Títulu eta xedapen hauek osatzen dute Ordenantza hau:	La presente Ordenanza está constituida por los siguientes títulos y disposiciones:
I. TITULUA	TÍTULO I
XEDAPEN OROKORRAK	DISPOSICIONES GENERALES
I. KAPITULUA	CAPITULO I
DIRULAGUNTZAREN XEDEA, KONTZEPTUA ETA MOTAK	OBJETO, CONCEPTO Y CLASES DE SUBVENCIÓN
1. artikulua. Helburua.	Artículo 1. Objeto.
Ordenantza honek helburu du dirulaguntzak eta laguntzak ematerakoan jarraitzen diren prozeduretan aplikatu beharreko araubide orokorra xedatzea, horrelakoen kudeaketa oso-osoan edo zati batean Arrasateko Udalari dagokionean.	Es objeto de la presente Ordenanza establecer el régimen general aplicable en los procedimientos que se sigan para la concesión de subvenciones y ayudas cuya gestión corresponda en su totalidad o en parte al Ayuntamiento de Arrasate.
2. artikulua. Dirulaguntzaren kontzeptua eta motak.	Artículo 2. Concepto y clases de subvención.
1. Dirulaguntza edo laguntzatzat joko da Arrasateko Udalak pertsona edo erakunde publiko edo pribatuei doan emandako fondo publikoak erabiltzea, interes orokorreko jardueraren bat sustatzeko edo xede publikoren bat lortzea abiarazteko.	1. Tendrá la consideración de subvención o ayuda cualquier disposición gratuita de fondos públicos otorgada por el Ayuntamiento de Arrasate, a favor de personas o entidades públicas o privadas, destinadas a fomentar una actividad de interés general o para promover la consecución de un fin público.
2. Dirulaguntzen edo laguntzen funtsa baldin bada udal jabetzako ondasunak doan saltzea edo horrelakoen gozamina eta aprobetxamendua lagatzea, arau honetan xedatutakoak eta aplikatu beharreko ondare arauak erabiliko dira erregulatzeko.	2. Cuando las ayudas o subvenciones consistan en la enajenación a título gratuito o en la cesión del disfrute y aprovechamiento de los bienes de titularidad municipal, se regirá por lo dispuesto en esta norma y en la normativa patrimonial que le sea de aplicación.
3. Dirulaguntza mota hauek bereiziko dira:	3. Se distinguen los siguientes tipos de subvenciones:

a) Norgehiagoka araubideko dirulaguntzak: Horrelakoetan hainbat eskabidek lehian jardun dezakete eta dirulaguntza emateak ondorioz dakar prozedura bakarrean eskabide horiek elkarrekin alderatzea, arau erregulatzailan edo deialdian xedaturiko irizpideen arabera, horren bitartez dirulaguntza nori eman ebatzi eta, beharrezkoa izanez gero, zenbatekoa zehazteko.	a) Subvenciones en régimen de concurrencia competitiva: Aquellas que contemplan una eventual pluralidad de solicitudes y la concesión requiere la comparación, en un único procedimiento, de dichas solicitudes entre sí, de acuerdo con los criterios establecidos en la norma reguladora o en la convocatoria para resolver sobre la concesión y en su caso establecer la cuantía.
b) Itunpeko dirulaguntzak: Programa-kontratuak, lankidetzak hitzarmenak edo beste itun edo akordio batzuk formalizatzearen ondorioz ematen direnak, behar bezala egiaztaturiko arrazoiak daudenean norgehiagoka araubidean emateko dirulaguntzak.	b) Subvenciones pactadas: Son aquellas que tienen su origen en la formalización de contratos-programa, convenios de colaboración u otros pactos o acuerdos, en las que concurren razones debidamente acreditadas que dificulten o desaconsejen su otorgamiento en régimen de concurrencia competitiva.
c) Zuzeneko dirulaguntzak, aurrekontuan izendun agertzen ez direnak, aurreko deialdirik behar ez dutenak: Baldintza zehatzetarako ematen direnak eta sustatzea komenigarritzat jotzen den jardueraren interes publiko berezia kontuan hartuz ematen direnak.	c) Subvenciones directas, que no figuran como nominativas en el presupuesto, sin convocatoria previa: Las que se otorgan para supuestos concretos y en atención al interés público singular de la actividad que se considera conveniente fomentar.
d) Dirulaguntza izendunak: Horrelakoetan lagun onuradunak zehazturik eta berariaz izendatuta agertzen dira udal aurrekontuan, eta horrela jasota daude udal aurrekontuko gastuen egoeran. Administrazio unitate eskudunak dirulaguntza ematea proposatuz gero, zehatz-mehatz azalduta agertuko da dirulaguntzaren zertarakoa, bai eta adierazita ere dirulaguntza ematea zein helburu, zeregin, jarduera edo proiektu jakini atxikita dagoen.	d) Subvenciones nominativas: Son aquellas cuya persona beneficiaria o beneficiarias se encuentran determinadas y explícitamente identificadas en el Presupuesto Municipal, y figuran con tal carácter en el Estado de Gastos del citado documento. La propuesta de concesión de la subvención realizada por la unidad administrativa competente deberá incluir descripción detallada del objeto de la subvención, así como el fin, propósito, actividad o proyecto específico al que se encuentra afectada su entrega.
3. artikulua. Eremua.	Artículo 3. Ambito.
1. Ordenantza honetan datozen arauak aplikatuko zaizkie laguntza eta dirulaguntza publikoei, horrelakoen kudeaketa oso-osoan edo zati batean Arrasateko Udalaren esku dagoenean.	1. Las normas contenidas en la presente Ordenanza se aplicarán a las ayudas y subvenciones públicas cuya gestión corresponda en su totalidad o en parte al Ayuntamiento de Arrasate.
2. Ordenantza honetan datozen arauak, arau berezirik edo berariazkorik izan ezean, hauei aplikatuko zaizkie:	2. Las normas contenidas en la presente Ordenanza serán de aplicación, en defecto de normas especiales o específicas:

a) Arrasateko Udalak pertsona edo erakunde publiko edo pribatuei doan emandako fondo publikoak erabiltzeari, interes orokorreko jardueraren bat sustatzeko edo xede publikoren bat lortzea abiarazteko.	a) A toda disposición gratuita de fondos públicos realizada por el Ayuntamiento de Arrasate a favor de personas o Entidades Públicas o privadas, para fomentar una actividad de utilidad o interés social o para promover la consecución de un fin público.
b) Udalaren aurrekontuaren kontura emandako edozein laguntza motari eta beste administrazio publiko batzuetako fondoez batera finantzatutako dirulaguntzei edo laguntzei.	b) A cualquier tipo de ayuda que se otorgue con cargo al Presupuesto del Ayuntamiento y a las subvenciones o ayudas financiadas conjuntamente con fondos de otras Administraciones públicas.
3. Beraien izaera dela-eta, berezko arautegia eskatzen duten dirulaguntzetan, arau berezi edo berariazkoek Ordenantza honen funtsezko aspektuak eta aplikagarri diren gainontzeko araudi legalak errespetatu beharko dituzte.	3. Aquellas subvenciones que por su naturaleza requieran una regulación propia, las normas específicas deberán, en todo caso, respetar los aspectos esenciales de la presente Ordenanza, así como el resto de las disposiciones legales de aplicación.
4. artikulua. Printzipio orokorrak.	Artículo 4. Principios generales.
1. Dirulaguntzak edo laguntzak emateko, ezinbesteko baldintza izango da ebazpena ematen den unean helburu horretarako aurrekontuan behar besteko diru izendapena izatea, eta ez dago obligaziorik aurrekontu kredituak gehitzeko.	1. Los programas de subvenciones o ayudas quedarán condicionados a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente para dichos fines en el momento de la resolución, sin que exista obligación alguna de proceder a incrementar los créditos presupuestarios.
2. Dirulaguntza edo laguntzak borondatezkoak eta gertagarriak izango dira, legeek edo araudiek bestela xedatutakoa izan ezik.	2. Las subvenciones o ayudas tendrán carácter voluntario y eventual, excepto lo que se dispusiera legal o reglamentariamente.
3. Lehendik emandako dirulaguntzek ez dute inongo eskubiderik sortuko eskaera egiten dutenen alde, eta beste inoiz eman izana ez da kontuan izango berriro emateko irizpide modura, legeek edo araudiek bestela xedatu ezean.	3. Las subvenciones otorgadas con anterioridad no crearán derecho alguno a favor de las personas solicitantes, y no se tendrá en cuenta el precedente como criterio para una nueva concesión, excepto lo que se disponga legal o reglamentariamente.
4. Ezingo da exijitu dirulaguntzaren zenbatekoa gehitzeko, salbuespenezko egoerek hala egitea aholkatu ezean, eta hala bada, Udalak berak baloratu eta bereganatu beharko ditu.	4. No será exigible el aumento de la cuantía de la subvención, salvo circunstancias excepcionales que lo motiven, que, en todo caso, deberán ser valoradas y asumidas por el propio Ayuntamiento.

5. Dirulaguntzak edo laguntzak emango dira Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera eta, halakorik izanez gero, deialdi bakoitza arautzeko oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta bermatu beharrekoak izango da Udalaren dirulaguntza jarduerak behar dituen printzipioak betetzea, Ordenantza honetako zioak azaltzean aipatu direnak.	5. La concesión de ayudas o subvenciones se efectuará conforme a lo establecido en la presente Ordenanza, y a lo dispuesto, en su caso, en las bases reguladoras de cada una de las convocatorias, debiéndose garantizar el cumplimiento de los principios inspiradores de la actividad subvencional del Ayuntamiento, citados en la exposición de motivos de la presente Ordenanza.
6. Dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu –bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera– onuradunak egin beharreko ekintzaren kostua.	6. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aislada o en concurrencia con otras subvenciones, supere el costo de la actividad a desarrollar por las personas beneficiarias.
7. Ez da izango zertan egin publicizaterik edo zertan antolatu norgehiagokarik, dirulaguntzak izendunak, zuzenekoak eta itunekoak izanez gero, ezta horiek ematea eta zenbatekoa Udala lotzen dituen arauen batek ezartzen dituenean ere.	7. No será necesaria la publicidad ni la concurrencia en los supuestos de subvenciones nominativas, directas y pactadas, ni cuando su concesión y cuantía resulten impuestas por norma que vincule al Ayuntamiento.
8. Dirulaguntzak eta laguntzak lehiaketa bidez emango dira normalean.	8. El procedimiento general para la concesión de las ayudas o subvenciones será el concurso.
5. artikulua. Eskuduntzak.	Artículo 5. Competencias.
Dirulaguntzak emateko organo eskudunak izango dira indarrean dagoen araudia aplikatzearen ondorioz eskuduntza izendatuta dutenak. Aurrekontua betearazteko oinarriek zehaztuko dute eskuduntza hori.	Los órganos competentes para otorgar subvenciones serán los que tenga atribuida la competencia por aplicación de la vigente normativa. Las Bases de Ejecución del Presupuesto concretarán dicha competencia.
II. KAPITULUA	CAPÍTULO II
DIRULAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKOA	RÉGIMEN JURÍDICO DE LAS SUBVENCIONES
6. artikulua. Araubide juridikoa	Artículo 6. Régimen jurídico.
1. Hauek bete behar dituzte dirulaguntzek: Ordenantza honen zehaztapenak, dirulaguntza-lerro bakoitza arautzen duten berariazko oinarriak eta dirulaguntza ematean indarrean den gainerako araudia.	1. Las subvenciones se regirán por las prescripciones contenidas en esta Ordenanza, por las bases específicas que regulan la convocatoria de cada una de las líneas de subvención, y demás normativa vigente en el momento de su concesión.
Udalaren aurrekontuan ageri diren dirulaguntza izendunetan eta zuzenean ematen direnetan, Ordenantza hau aplikatu behar da dagokion hitzarmen arautzaileak aurreikusi gabeko gaitetan, baldin eta bat badator zuzenean emateko dirulaguntzei buruzko lege-xedapenekin.	En las subvenciones que figuran nominativamente en el presupuesto municipal y las que se conceden directamente, se aplicará la presente Ordenanza en lo que no hubiera previsto el convenio regulador correspondiente y sea acorde con las disposiciones legales sobre subvenciones de concesión directa.

Ordenantza honetan, oinarri espezifikoetan eta kasuan kasuko deialdian aurreikusi gabekoetan, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua — uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua— aplikatu behar dira, bai eta aurrekontua egikaritzeko oinarriak eta aplikagarri diren gainerako xedapenak ere, berariazko ordenantzaren batek arautzen dituenak izan ezik.	En todo lo no previsto en la presente Ordenanza, bases específicas y la correspondiente convocatoria, se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, las bases de ejecución del presupuesto y resto de disposiciones que resulten de aplicación, salvo que estén reguladas mediante una ordenanza específica
2. Ordenantza honetako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie Udalaren laguntza edo dirulaguntza programa guztiei, baita zuzenean emandako diru-laguntzei ere. Oinarri espezifikoek edo izendunen kasuan horiek erregulatzen dituzten hitzarmenek, berariaz, ez badute beste erregulazio mota bat ezartzen. Kasu horretan, Oinarri espezifikoek edo hitzarmenek ezartzen dutena bete beharko da eta osagarria izango da Ordenantza Orokor honek dioena.	2. Salvo que las bases específicas o en los convenios se establezcan expresamente otro tipo de regulación, las disposiciones y requisitos establecidos en la presente Ordenanza será de aplicación a todos los programas de ayuda o subvención aprobados por el Ayuntamiento, así como a las subvenciones concedidas en otros regímenes diferentes de los de concurrencia competitiva (nominativas, convenio y directas). En caso de que establecerse otro tipo de regulación, se cumplirá lo dispuesto en las bases específicas o los convenios y lo establecido en esta ordenanza general se aplicará con carácter supletorio.
3. Sortzen den tresna juridikoaren edo Hitzarmenaren arabera arautu behar dira Arrasateko Udala eta hainbat administrazio publiko edo haien mendeko bestelako organismoak partaide dituzten partzuergoek, mankomunitateek edo erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak eta haien arteko hitzarmenak direla medio ematen direnak, eta Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoarekin etorri behar dute bat.	3. Las subvenciones que se otorguen por consorcios, mancomunidades u otros entes en los que participe el Ayuntamiento de Arrasate y varias Administraciones públicas u organismos o entes dependientes de ellas y las subvenciones que deriven de Convenios formalizados entre éstas, quedarán reguladas según lo previsto en el instrumento jurídico de creación o en el propio Convenio que, en todo caso, deberán ajustarse a las disposiciones contenidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
4.4. Europar Batasunaren kontura finantzatzen diren dirulaguntzak, berriz, kasu bakoitzari aplikagarri zaizkion arauen eta haiek EBko estatu bakoitzean garatzeko edo haietara egokitzeak arauen arabera kudeatu behar dira.	4. Las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea se registrarán por las normas comunitarias aplicables en cada caso y por las normas nacionales de desarrollo o transposición de aquéllas.
5. Europar Batasunaren kontura finantzatzen diren dirulaguntzei zuzenean aplikagarri zaizkien arauen osagarriak dira Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko prozedurak.	5. Los procedimientos de concesión y control de las subvenciones reguladas en esta Ordenanza tendrán carácter supletorio respecto de las normas de aplicación directa a las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea.
III. KAPITULUA	CAPITULO III

DIRULAGUNTZEN ONURADUNAK, ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA HAIEN OBLIGAZIOEI BURUZ	DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS DE LAS SUBVENCIONES, ENTIDADES COLABORADORAS Y SUS OBLIGACIONES
7. Artikulua. Onuradunak.	Artículo 7. Beneficiarios.
Onuraduntzat jotzeko, egiaztatu beharko da Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete izana.	Para obtener la condición de beneficiario deberá acreditarse el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da fondo publikoak jasoko dituen pertsona fisiko edo juridikoa, hori emateko zergatikotzat jotako ekintza egin beharko duena, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena.	Tendrá la condición de beneficiario de la subvención la persona física o jurídica destinataria de los fondos públicos que haya de realizar el comportamiento que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión.
Elkarteek edo entitateek Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan edo bestelako erregistro publikoetan izena emanda egon beharko dute, eta identifikazio fiskaleko kodea eduki beharko dute.	Las Asociaciones o Entidades deberán hallarse inscritas en el Registro de Asociaciones de la Comunidad Autónoma u otros registros públicos, y hallarse en posesión del correspondiente código de identificación fiscal.
Deialdian edo hitzarmenean espresuki aurreikusten denean, orobat eskuratu ahal izango dute onuradun izaera pertsona fisiko edo juridikoek —publiko nahiz pribatu— osatutako elkarteek, ondasun komunitateek, edo beste edozelako ekonomia unitate edo ondare bereizi, nortasun juridikorik izan gabe ere, dirulaguntza ematea dakarten proiektuak, jarduerak edo portaerak gauzatzerik badute, edo dirulaguntza ematea dakarren egoeran badaude. Nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek —publiko nahiz pribatu— osatutako taldeak direnean, berariaz adierazi beharko dira, eskabidean eta emate-ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko bere gain hartzen dituen konpromisoak. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da halakoetan, onuraduna den aldetik taldeak dituen betebeharrak behar bezala bete ahal izateko nahikoa ahalmena duena. Taldea ezingo da desegin Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. Artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.	Cuando se prevea expresamente en la convocatoria o convenio, podrán acceder a la condición de persona beneficiaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención. Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada persona miembro de la agrupación. En cualquier caso, deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

8. artikulua. Erakunde laguntzaileak	Artículo 8. Entidades colaboradoras
1. Hauek dira erakunde laguntzaileak: dirulaguntzarekin lotutako ondore guztietarako organo emailearen izenean eta kontura arituta, onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, deialdian hala ezarrita badago, edo jasotako funtsak aldeztu aurretik eman eta banatu gabe dirulaguntzaren kudeaketan laguntzen dutenak. Inolaz ere ez dira joko funts horiek erakunde horien ondarearen parte.	1. Será entidad colaboradora aquella que, actuando en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a las personas o entidades beneficiarias, cuando así se establezca en la convocatoria, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrantes de su patrimonio.
Halaber, izaera hori izango dute EBko araudiaren arabera onuradun izendatuak izanik aurreko paragrafoan zerrendatutako eginkizunak soilik esleitura dituztenek.	Igualmente tendrán esta condición quienes habiendo sido denominadas beneficiarias conforme a la normativa comunitaria, tengan encomendadas exclusivamente las funciones enumeradas en el párrafo anterior.
2. Erakunde laguntzailetzat hartu ahal izango dira Udalaren mendeko organismoak eta zuzenbide publikoko gainerako erakundeak, partaide erabateko edo nagusi Udala duten merkataritza-sozietateak eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elkarteak.	2. Podrán ser consideradas entidades colaboradoras los organismos y demás entes de derecho público dependientes del Ayuntamiento, las sociedades mercantiles participadas íntegra o mayoritariamente por el mismo y las asociaciones a que se refiere la disposición adicional quinta de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
9. artikulua. Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko bete beharreko baldintzak.	Artículo 9. Requisitos para obtener la condición de beneficiario/a o entidad colaboradora.
1. Hauek izan daitezke onuradun edo erakunde laguntzaile: dirulaguntza jasotzea justifikatzen duen egoeran dauden pertsonak edo erakundeak, edo deialdian aurreikusten diren inguruabarrak betetzen dituztenak.	1. Podrán obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora las personas o entidades que se encuentren en la situación que fundamente la concesión de la subvención o en las que concurren las circunstancias previstas en la convocatoria.
2. Baldintza hauek bete behar dituzte erakunde laguntzaileek, Ordenantza honetan eta 38/2003 Legean ezarritakoez gain:	2. Las entidades colaboradoras, además de los requisitos establecidos en esta Ordenanza y en la Ley 38/2003, deberán reunir los siguientes:
a) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan behar dute.	a) Tratarse de una entidad sin ánimo de lucro.
b) Dirulaguntza kudeatzeko behar adina baliabide material eta jende badutela frogatu behar dute.	b) Acreditar la disposición de medios materiales y humanos suficientes para la gestión de la subvención.

3. Ezingo dira izan Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile inguruabar hauek dituzten pertsonak eta erakundeak, dirulaguntzaren izaeragatik haren araudi erregulatzaileak salbuesten ez baditu:	3. No podrán obtener la condición de beneficiario/a o entidad colaboradora de las subvenciones reguladas en esta Ordenanza las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias siguientes, salvo que por la naturaleza de la subvención se exceptúe por su normativa reguladora:
a) Epai irmoaren bidez zigortuak, dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik ez izatera.	a) Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.
b) Konkurtso-deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jotakoak, konkurtsoa deklaratu dutenak, esku-hartze judizial baten mende daudenak edo Konkurtso Legearen arabera desgaitu dituztenak eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-epaia amaitu gabe dutenak.	b) Haber solicitado la declaración de concurso, haber sido declarados insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declarados en concurso, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
c) Errudun jo dituzten kausaren bat dela medio, Administrazioarekin sinatutako kontratu oro irmoki suntsiarazita dutenak.	c) Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declarados culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
d) Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legearen edo Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen suposturen baten pean dauden pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legeko ordezkariak dutenak, edo ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoak arautzen dituen hautapenezko karguetan daudenak, lege horrek dioenari edo gai horiek erregulatzen dituen araudi autonomikoari jarraikiz.	d) Estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 3/2015, de 30 de marzo, reguladora del ejercicio del alto cargo de la Administración General del Estado, Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.
e) Egunean ez daudenak indarreko xedapenek ezarritako zerga-betekizunetan eta Gizarte Segurantzarekikoetan, erregelamenduz zehazten den moduan.	e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.
f) Erregelamenduz zerga-paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean dutenak zerga-egoitza eta Arrasateko Udalaren eta haren mendeko erakundeen zordun ez direnak, mugaeguneratutako zorrak direla medio (likidoak eta epe exekutiboan galdagarriak).	f) Tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal y no ser deudor/a del Ayuntamiento de Arrasate y de los entes de él dependientes, por deudas vencidas, liquidas y exigible en período ejecutivo.

g) Egunean ez daudenak dirulaguntzak itzultzeagatiko obligazioak ordaintzeari dagokionez.	g) No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
h) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi araubera.	h) Haber sido sancionado/a mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según la Ley 38/2003, Ley 15/2022, de 12 de julio, para la Igualdad de Trato y No Discriminación, la Norma Foral Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa o cualquier otra norma que resulte de aplicación.
i) Sexu-bereizkeriagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala dutenek, edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean ez-betetzeak egin dituztenek, Euskadiko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, dagokion zehapenak agintzen duen eperako.	i) Haber sido sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimientos en materia de igualdad de hombres y mujeres, según lo dispuestos en la Ley 4/2005 de Euskadi, para la Igualdad de Hombres y Mujeres durante el período que establezca la correspondiente sanción.
j) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.	j) Encontrarse en cualquier circunstancia en la que la legislación vigente impida a los poderes públicos la concesión de subvenciones.
4. Inolaz ere ezin dute izan Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatueta aurreikusitako debeku-arrazoiek eragindako elkarteak.	4. En ningún caso podrán obtener la condición de beneficiaria o entidad colaboradora de las subvenciones reguladas en esta Ordenanza las asociaciones incursas en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.
Halaber, ezin dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak aurkitzeagatik inskripzio-prozedura administratiboa eten zaizen elkarteak, harik eta ebazpen judizial irmo batek adierazi arte egin daitekeela inskripzioa kasuan kasuko erregistroan.	Tampoco podrán obtener la condición de beneficiaria o entidad colaboradora las asociaciones respecto de las que se hubiera suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley Orgánica 1/2002, en tanto no recaiga resolución judicial firme en cuya virtud pueda practicarse la inscripción en el correspondiente registro.

5. Hauek dira onuradun edo erakunde laguntzaile izateko pertsonak edo erakundeek artikuluko 2. eta 3. apartatueta aipatutako debekurik ez dutela frogatzen duen agiria eskuratzeko bideak: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoa edo datu-transmisioak —Estatuko edo autonomia-erkidegoetako Administrazio Orokorrek teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoa erabiltzeko ezarritako erregelamenduzko araudiari jarraikiz— edo administrazioaren ziurtagiria, kasua zein den. Agintaritzak eskudunak ezin badu agiri hori egin, haren ordean erantzukizunpeko adierazpen bat egin daiteke administrazio-agintaritzak edo notario publiko baten aurrean. Halere, beharrezkoa izango da ziurtagiri fede-emaila aurkeztea, dirulaguntzaren onuradun suertatuz gero.	5. La justificación por parte de las personas o entidades de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria o entidad colaboradora, señaladas en los apartados 2 y 3 de este artículo, podrá realizarse mediante testimonio judicial, certificados telemáticos o transmisiones de datos, de acuerdo con lo establecido en la normativa reglamentaria que regule la utilización de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas por la Administración General del Estado o de las Comunidades Autónomas, o certificación administrativa, según los casos, y cuando dicho documento no pueda ser expedido por la autoridad competente, podrá ser sustituido por una declaración responsable otorgada ante una autoridad administrativa o notario público, sin perjuicio de acreditación fehaciente en el caso de resultar beneficiaria de la subvención.
10. artikulua.— Onuradunen eskubideak eta betekizunak	Artículo 10. Derechos y obligaciones de los beneficiarios
1. Emandako zenbatekoa kobratzeko eskubidea dute pertsona edo erakunde onuradunek, dagokion deialdi, hitzarmen edo emate-erabakiko baldintzei jarraikiz.	1. Las personas o entidades beneficiarias tienen derecho al cobro de la cantidad concedida en los términos y condiciones que se hayan establecido en la respectiva convocatoria, convenio o resolución de concesión.
2. Berariazko oinarriek, deialdiek, hitzarmenek edo emate-erabakiek jasotzen dituzten berariazko betekizunak gain, Arrasateko Udalaren dirulaguntzen onuradunen betebeharrak orokorrak izango dira 38/2003 Legearen 14. artikuluan araututakoak, zehazki:	2. Sin perjuicio de las obligaciones específicas que recojan las bases específicas, las convocatorias, los convenios o resoluciones de concesión, serán obligaciones generales de las personas beneficiarias de las subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate las reguladas en el artículo 14 de la Ley 38/2003, concretamente:
a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza egitea edo dirulaguntza emateko zio den jokabideari eustea.	a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.
b) Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.	b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.	c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.
d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta edozelan ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.	d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos.
e) Dirulaguntza ematea erabakitzeke proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, Arrasateko Udalarekin, Foru Ogasunekin eta Estatuko Ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.	e) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Arrasate, las Haciendas Foral y Estatal y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Eskaeran horren aurka egiten ez badu, Arrasateko Udalak egiaztatu ahal izango du eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarako betebeharrak betetzen dituela, Ordenantza honetako 15. artikuluan (eskabideak) jasotakoari jarraiki.	En caso de no oponerse a ello en la solicitud, el Ayuntamiento de Arrasate podrá comprobar que el solicitante cumple con sus obligaciones fiscales y de la Seguridad Social, en los términos recogidos en el artículo 15 de esta Ordenanza (solicitudes).
f) Kontabilitate liburuak, eginbideko erregistroak eta gainerako agiriak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritza eta sektore legeriak exijitutako terminoetan, behar bezala auditaturik, baldin eta indarrean dagoen arauditik edo Ordenantza honetatik ateratzen bada betebehar hori; bai eta dirulaguntzak arautzeko oinarriak exijitzen dituzten kontabilitate egoerak eta erregistro bereziak ere, egiaztatu eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatze alde.	f) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, debidamente auditados, si de la normativa vigente o de la presente Ordenanza se desprende dicho requisito, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
g) Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezten. Bestelakorik xedatzen duen arau espezifikorik izan ezean, dirulaguntza zertan erabiliko den egiaztatzen duen dokumentazioa gorde beharko du onuradunak, eta Udalak eskatu dezake hori, gutxienez bost urteko aldi batean.	g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control. En defecto de regulación específica que disponga lo contrario, la documentación que acredite el destino de la subvención deberá ser conservada por el beneficiario, y susceptible de ser solicitada por el Ayuntamiento, durante un periodo mínimo de cinco años.

h) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Arrasateko Udalak diruz lagundu duela.	h) Adoptar las medidas de difusión de la actividad subvencionada, en las que se haga constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Arrasate.
Editatzen diren liburuxka, kartel, sare sozial edo beste edozein publizitate-euskarritan adierazi beharko da Arrasateko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, aurkezpen edo prentsaurreko bat egiten bada, Arrasateko Udala gonbidatu beharko da.	En todos los folletos que se editen, carteles, redes sociales o cualquier otro soporte publicitario, se deberá señalar que ha sido subvencionado por el Ayuntamiento de Arrasate. Así mismo, en caso de que se realice una presentación o rueda de prensa, se deberá de invitar al Ayuntamiento de Arrasate.
- Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. artikuluan hizkuntza sustatzeko ezarritako neurriak betez	- Cuando en el marco de la actividad subvencionada se produzcan comunicaciones o publicaciones, se dará preferencia al euskera en las mismas, al objeto de cumplir las medidas de fomento de la lengua establecidas en el artículo 26 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización y uso del euskera.
Orobat, diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehatzugabe batekin edukitzea zuzeneko harremana, euskararen erabilera normala bermatuko da, hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzea.	Asimismo, cuando la actividad objeto de subvención implique una relación directa con un conjunto indeterminado de vecinos, se garantizará el uso normal del euskera, sin perjuicio del uso del castellano.
Hori guztia, 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoan ezarritakoa betetzeko.	Todo ello en cumplimiento de lo establecido en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik.	- En los anuncios y comunicaciones asociadas con la actividad, proyecto o programa no se utilizará ni lenguaje ni imágenes sexistas.
Diruz lagunduko diren jarduerai buruzko publizitateren bat jarri behar izanez gero, hori guztia egin beharko da “Kale garbiketako udal ordenantza”k xedatutakoaren arabera.	En caso de colocación de publicidad relativa a las actividades objeto de subvención, ésta deberá realizarse conforme a lo regulado por la “Ordenanza Municipal de Limpieza Viaria”.
i) Jasotako fondoak itzultzea, Ordenantza honetako agertzen diren kasuetan.	i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en la presente Ordenanza.
j) Behar beste baimen lortzea, diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.	j) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.
k) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, Udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.	k) Facilitar información sobre el desarrollo de la actividad, de cara al seguimiento y posible colaboración por parte del Ayuntamiento.

l) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea, dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero.	l) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
m) Adingabekoak parte hartzen duten jardueretan, entitate onuradunak Behar diren neurriak hartu behar dira bi lege hauek bete daitezten dirulaguntza eskatu duen erakundeak antolatzen, Udalak diruz laguntzen eta adingabeek parte har dezaketen jarduera eta ikastaro guztietan: Adingabearen Babes Juridikoaren urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoa. Halaber, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa ere aurkeztu behar dute jarduera horien antolatzailerak.	m) En aquellas actividades en que tomen parte menores de edad, la entidad beneficiaria deberá adoptar las medidas necesarias para que, en cualquier actividad o curso organizado por la entidad solicitante de la subvención en el que puedan participar menores de edad y que haya sido subvencionado por el ayuntamiento, se cumpla lo establecido por la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, y por la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio, de Modificación del Sistema de Protección a la Infancia y a la Adolescencia, y además exigir la presentación del certificado negativo del Registro Central de Delinquentes Sexuales a quienes vayan a llevar a cabo dichas actividades.
Bestalde, indarreko araudi aplikagarria bete beharko da, eta baldintza hauek bete:	Además, deberá de respetar cuanta normativa vigente le resulte de aplicación y cumplir las condiciones siguientes:
• Tratu-berdintasunari eta pertsonen diskriminaziorik ezari dagokienez, uztailaren 12ko 15/2022 Legeak dioena bete behar da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, berriz, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea bete behar da, eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa. Hona hemen arlo horretan bete beharreko baldintzak:	• Respecto a la igualdad de trato y la no discriminación de las personas, deberá de cumplir la Ley 15/2022, de 12 de julio. Así mismo, respecto a la igualdad de mujeres y hombres deberá cumplir la Ley Vasca 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y la Ley Orgánica 3/2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres. Al respecto, entre otras, tendrá las siguientes obligaciones:
Aurrekontua onartu ondoren, kreditu-atxikipenari buruzko agiria idatzi behar du Kontu-hartzailetza, eta instrukzio-organoari aurkeztu behar dio, prozedura bideratzen jarrai dezan.	Una vez aprobado el presupuesto la Intervención elaborará el correspondiente documento de retención de crédito y lo remitirá al órgano instructor para la continuación del procedimiento.
Nolanahi dela ere, balizko onuradunarentzako jakinarazpen orok berariaz aipatu behar du alde aurreko izapidetze-modu hori, eta ohartarazi dirulaguntza emateko nahitaezko baldintza dela kreditua egotea dagokion ekitaldian.	En todo caso en las comunicaciones con la posible beneficiaria se deberá hacer referencia expresa a esta forma de tramitación anticipada, advirtiéndole que la concesión de las subvenciones quedará condicionada a la efectiva existencia de crédito en el ejercicio correspondiente.
4. Atala. Ebazpena	Sección 4. Resolución
42. artikulua. Ebazpena	Artículo 42. Resolución
1. Alkatearen edo hark eskuordetzen duen organoaren edo karguaren, edo Udalaren mendeko erakunde publikoen organo eskudunaren, erabakiz dirulaguntza emateko proposamena onesteak ebazten du dirulaguntzak emateko prozedura.	1. La aprobación por resolución de Alcaldía u órgano o cargo en quien delegue de la propuesta de concesión resuelve el procedimiento de concesión de las subvenciones.

2. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena, dagokionaren arabera, arrazoitua izango da, eta ebazpen horretan hartutako ebazpenaren oinarriak egiaztatu beharko dira.	2. La resolución de concesión o denegación, según proceda, de la subvención deberá ser motivada, debiendo quedar acreditados en éste los fundamentos de la resolución que se adopte.
3. Berariaz adierazi behar dira datu hauek: dirulaguntza jasoko duen onuraduna (edo onuradunak), laguntzaren zenbatekoa, hura emateko oinarri izan diren irizpideak eta arrazoiak eta baita gastua zein aurrekontu-partidari egotziko zaion ere.	3. Deberá hacer constar de manera expresa: la persona o entidad beneficiaria o la relación de beneficiarias a las que se concede la subvención, su cuantía, los criterios y razones que han servido de base para efectuarla, así como la partida presupuestaria a la que se imputará el gasto.
4. Erabakiaz gain, ebazpenean hauek adierazi behar dira: zer errekurtsio aurkez daitezkeen haren kontra, zer organo administratibo edo judizialetan aurkeztu behar diren eta zein den horretarako epea, eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste errekurtsoren bat aurkezteko duten eskubidea.	4. La resolución, además de la decisión, deberá contener los recursos que contra la misma procedan, órgano administrativo o judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen oportuno.
5. Udal organo eskudunaren erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa izanez gero, ondasunok edo diru baliabideok izendatuko zaizkio udal unitate proposamen egileari eta, horren ondorioz, hitzarmena kontrolatu eta horren jakitun egoteko erantzukizuna.	5. En el supuesto de que la decisión del órgano municipal competente sea favorable a la concesión de subvención, se adscribirán a la unidad proponente los bienes o recursos económicos en cuestión y, consecuentemente, la responsabilidad del control y seguimiento del convenio.
Kontrolak eta segimenduak barne hartu beharko dituzte laguntza ematerakoan kontuan izaten diren alderdi guztiak.	El control y seguimiento deberá abarcar todos los aspectos considerados en el momento de otorgar la ayuda.
Nolanahi ere den, dirulaguntza bereziak izanez gero, unitateak nahitaez eman beharko du txostena adierazteko ea dirulaguntza benetan erabili den emateko ziotzat jotako helburu berezian.	En todo caso, en los supuestos de subvenciones singulares, esta tarea comportará la obligación de la unidad de informar si la subvención ha sido efectivamente destinada a la finalidad específica para la que fue concedida.
6. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da. Eskabidea aurkeztu den egunetik sei hilabete igaroz gero berariaz ezer ebatzi edota jakinarazi gabe, interesdunak pentsatu beharko du ez dela onartu.	6. El plazo máximo para resolver y notificar no podrá exceder de seis meses. Transcurridos seis meses desde la fecha de presentación de la solicitud sin que se haya dictado y notificado la resolución expresa, la persona interesada podrá entender desestimada su solicitud.
7. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinarazi behar zaie ebazpena eskatzaileei.	7. La resolución será notificada a las personas o entidades solicitantes de conformidad con lo prescrito en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 octubre, reguladora del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

8. Hitzarmena arautzen duen testua alderdiek sinatzean formalizatzeko da dirulaguntzaren onespena; une horretatik aurrera, eraginkortasuna izango du dirulaguntzaren esleipenak.	8. La aceptación de la subvención se formalizará a través de la firma por las partes, del texto regulador del convenio, adquiriendo a partir de ese momento eficacia el acto de concesión de la subvención.
43. artikulua. Hitzarmena	Artículo 43. Convenio
Atal honetan erregulatzen diren dirulaguntzetan, lankidetzak hitzarmen bat sinatu beharko dute batetik onuradunak eta bestetik Udalak, eta hor ezarriko eta erabakiko dituzte zein eremu berezitan jardungo duten lankidetzan, zer ekintza egingo duten, eta sinatzaileek zer eskubide eta betebeharrak duten.	En las subvenciones reguladas en la presente sección, se deberá proceder a la suscripción de un convenio de colaboración entre el beneficiario y el Ayuntamiento donde se fijarán y determinarán los ámbitos de colaboración específicos, actuaciones concretas a desarrollar, así como los derechos y obligaciones de los suscribientes.
Hitzarmenak nahitaez jaso behar ditu:	El convenio deberá contener necesariamente:
a) Xedearen definizio zehatz eta berariazkoa.	a) Definición concreta y expresa del objeto.
b) Proiektuaren aurrekontua eta hura finantzatzeko modua.	b) Presupuesto del proyecto y forma de financiación.
c) Alderdien konpromisoak.	c) Compromisos de las partes.
d) Behar denean, onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa.	d) Documentación a aportar por la beneficiaria, en su caso.
e) Zein aurrekontu-kredituri egozten zaion dirulaguntza.	e) Crédito presupuestario al que se imputa la subvención.
f) Zeharkako gastuak, kudeaketakoak eta banku-bermeari dagozkionak diruz laguntzeko aukera eta, dagokionean, laguntzaren ehunekoa.	f) Posibilidad de subvencionar, y en su caso porcentaje, los gastos indirectos, de gestión y de garantía bancaria.
g) Azpikontratatzeko aukera, Ordenantza honetako ezartzen dituen mugak aintzat hartuta.	g) Posibilidad de subcontratación con los límites fijados en esta Ordenanza.
h) Ordainketa aurreratuak eta konturakoak egiteko aukera ezartzea eta, dagokionean, justifikatzea.	h) Fijación, y justificación, en su caso, de la posibilidad de efectuar pagos a cuenta y pagos anticipados.
i) Ordainketa aurreraturik finkatzen bada:	i) En el supuesto de que se establezcan pagos anticipados:
— Emandako zenbatekotik ordainketa aurreratu gisa abonatu beharreko zenbatekoaren ehunekoa.	— Porcentaje del importe concedido a abonar en concepto de pago anticipado.
— Egoki iritziz gero, Udalaren aldeko bermeak aurkezteko eskatzea; indarreko legerian araututako baliabideak erabili beharko dira.	— Exigencia, si así se estima, de la presentación de garantías a favor del Ayuntamiento por los medios regulados en la legislación vigente.

j) Proiektu-aurrekontutik onuradunak finantzaketa propio bidez edo beste dirulaguntza batzuen bidez finantzatu beharreko ehunekoa.	j) Tanto por ciento del presupuesto del proyecto a financiar por el beneficiario, bien por financiación propia o a través de otras subvenciones.
k) Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna.	k) Compatibilidad o incompatibilidad de la subvención.
l) Dagokion dokumentazioa justifikatzeko modua, epea eta lekua, eta dirulaguntzaren ebaluazio-txostenean jaso beharreko datuak.	l) Forma de justificación, plazo y lugar de presentación de la correspondiente documentación y extremos a incluir en la memoria evaluativa de la subvención.
m) Hitzarmenaren indarraldia, hura luzatzeko aukera eta horretarako baldintzak eta betekizunak.	m) Plazo de vigencia del Convenio, posibilidad de prórroga, y requisitos y condiciones para que se produzca.
n) Dagokionean, Dirulaguntzen Araudi Orokorrean eta Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutako arau orokorrekiko salbuespena dakarten berezitasunak.	n) En su caso, especificidades que supongan excepción a las reglas generales establecidas en el Reglamento General de Subvenciones y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
Hitzarmena izenpetu gabe utz daiteke, baldin eta emandako dirulaguntza Udalaren aurrekontu-egikaritzaren arauan aurreikusitakoa baino txikiagoa bada. Horrelakoetan, esleipenaren ebazpenean xedearen definizio berariazko eta zehatza eta alderdien konpromisoak jaso behar dira, gutxienez.	No será precisa la firma del convenio si la subvención otorgada es inferior a la prevista en la norma de ejecución presupuestaria municipal. En este caso, en la resolución de concesión se deberán de contemplar al menos la definición expresa y concreta del objeto y los compromisos de las partes.
44. artikulua. Prozeduraren salbuespenak	Artículo 44. Excepciones al procedimiento.
1. Salbuespen gisa, eta aurrez justifikatutako premiazko arrazoiak direla medio eta dagokion kreditu-atxikipenari buruzko agiriarekin, alderantzikatu egin daiteke prozedura; hots, lehenbizi hitzarmenaren testu arautzailea sina dezakete Udalaren eta onuradunaren ordezkariak.	1. Con carácter excepcional, y por razones de urgencia, previamente justificada en el expediente y con el correspondiente documento de retención de crédito, se podrá invertir el procedimiento, iniciándose con la firma del texto regulador del convenio por los/as representantes del ayuntamiento y de la beneficiaria.
Horrelakoetan, prozedura bera erabili behar da, eta dirulaguntzaren esleipenak ez du eraginkortasunik izango, harik eta hura onartzeko eskumena duen organoak izenpetzea berresteko ebazpena plazaratu arte.	En este supuesto, deberá seguirse el mismo procedimiento, no adquiriendo eficacia la concesión de la subvención hasta que el órgano competente para la aprobación, emita la resolución ratificando la suscripción efectuada.
VI. KAPITULUA	CAPÍTULO VI
UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEI KUOTAK ORDAINTZEKO TRANSFERENTZIAK	TRANSFERENCIAS PARA PAGO DE CUOTAS A ENTES SUPRAMUNICIPALES

45. artikulua. Partzuergoen, mankomunitateen eta udalaz gaindiko gainerako erakundeen kuotak	Artículo 45. Cuotas a Consorcios, Mancomunidades y demás entes supramunicipales.
Ordenantza honetan erregulatutako eskabidea eta dokumentazioa aurkezteko obligaziotik salbuetsita daude Udalak ordaindu behar dituen transferentzia edo diru kopuru guztiak, udalaz gaineko izaera duten zerbitzu, erakunde edo elkarteetakoak izateko kuotak ordaintzeko direnean. Udala bere borondatez da horietako kide, udalbatzarrean halaxe onartuta, eta horien kide izaten jarraituko du kontrakorik erabaki ezean organo eskudunak, udal akordio baten bidez.	Quedan excluidas de la obligación de presentar la solicitud y documentación regulados en esta Ordenanza todas aquellas transferencias o cantidades que deba abonar el Ayuntamiento en concepto de cuota de pertenencia a los diferentes servicios, organismos o asociaciones de carácter supramunicipal de los que el Ayuntamiento voluntariamente forma parte por haberlo así aprobado el Pleno municipal, y hasta tanto no se adopte por órgano competente acuerdo municipal en sentido contrario.
Kopuruak edo kuotak zuzenean ordainduko ditu Udalak, udalaz gaineko erakundearen organo eskudunak kuotak ezartzeko dagokion akordioa hartu eta gero, baina erakunde horretako zerbitzuek nahitaez bidaliko dio Udalari urtealdi bakoitzeko gastuen eta diru sarreraren aurrekontuei eta likidazioari buruzko dokumentazioa.	Las cantidades o cuotas correspondientes serán abonadas directamente por el Ayuntamiento, previa adopción del oportuno acuerdo de fijación de cuotas por parte del órgano competente del ente supramunicipal, todo ello sin perjuicio de la obligatoriedad de remisión formal al Ayuntamiento por parte de los servicios correspondientes del citado ente, de la documentación relativa a los presupuestos y liquidación de gastos e ingresos de cada ejercicio.
VII. KAPITULUA	CAPÍTULO VII
PUBLIZITATEA	PUBLICIDAD
46. artikulua. Publizitatea	Artículo 46. Publicidad.
Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (DDBN) izango da dirulaguntzen publizitate-sistema nazionala.	La Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) operará como sistema nacional de publicidad de subvenciones.
Xede horietarako, dirulaguntza ematen duen administrazioak DDBNari bidali behar dio deialdi-ebazpenei buruzko informazioa, DDBNaren baliabide elektronikoak erabiliz.	A tales efectos la administración concedente remitirá a la BDNS información sobre las convocatorias y resoluciones recaídas por los medios electrónicos que ésta proporcione.
Udalaren webgunean argitaratu behar dira emandako dirulaguntzen eta onuradunen zerrendak eta laguntzen zenbatekoak.	La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento.
Ez dira plazaratuko dirulaguntzen datuak, baldin eta haiek argitaratzea pertsona fisikoen ohorea eta intimitate pertsonal nahiz familiarra errespetatzearen eta zaintzearen aurkakoa izan badaiteke eta hala jasotzen badute dirulaguntzaren berariazko oinarriak.	No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así se recoja en las bases específicas de la concreta subvención.

Jarduera egiteko dirulaguntza Arrasateko Udalak eman duela zabaldu behar du pertsona edo erakunde onuradunak	La persona o entidad beneficiaria de la subvención estará obligada a difundir que la actividad ha sido subvencionada por el Ayuntamiento de Arrasate.
III. TITULUA	TÍTULO III
KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA	GESTIÓN Y JUSTIFICACIÓN
I. KAPITULUA	CAPÍTULO I
KUDEAKETA	GESTIÓN
1. Atala. Kudeaketa printzipioak	Sección 1. Principios de gestión
47. artikulua. Kudeaketa-printzipioak	Artículo 47. Principios de gestión
Printzipio hauen arabera kudeatu behar dira dirulaguntzak:	La gestión de las subvenciones se realizará de acuerdo con los siguientes principios:
a) Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.	a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
b) Eraginkortasuna, Arrasateko Udalak ezarritako helburuak betetzean.	b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por el Ayuntamiento de Arrasate.
c) Eraginkortasuna, baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.	c) Eficiencia en la asignación y utilidad de los recursos públicos.
48. artikulua. Baldintzak.	Artículo 48. Requisitos.
Kudeaketari dagokionez, berriz, baldintza hauek hartu behar dira kontuan dirulaguntzak esleitzerakoan:	En cuanto a los principios de gestión el otorgamiento de subvenciones deberá cumplir los siguientes requisitos:
a) Dirulaguntza ematen duen organo administratiboaren eskuduntza.	a) Competencia del órgano administrativo concedente.
b) Administrazio-kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza emateak dakartzan eskakizun ekonomikoak betetzeko.	b) Existencia de crédito administrativo adecuado y suficiente para atender a las obligaciones económicas derivadas de la concesión de la subvención.
c) Prozedura egokiro izapidetzea.	c) Tramitación correcta del procedimiento.
d) Administrazio-egintzak aldeztu aurretik fiskalizatzea, Legeak agintzen duenari jarraikiz.	d) Fiscalización previa de los actos administrativos en los términos previstos en la Ley.
e) Organo eskudunek gastua onestea eta ordainketa agintzea.	e) Aprobación del gasto y ordenación del pago por los órganos competentes.

49. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa bermatzeko kontabilitate-liburuak eta -erregistroak	Artículo 49. Libros y registros contables para garantizar la justificación de la subvención.
Arrasateko Udalaren dirulaguntzaren bat jasotzen duen pertsona fisiko edo juridiko orok bere kontabilitatean jaso behar du laguntza. Horretarako, kontabilitate-liburuak, izapide-erregistroak eta/edo gainerako agiriak erabili behar ditu, behar bezala eginak, administrazio publikoen merkataritzako, sektoreko edo berariazko legeriak agintzen duenaren arabera.	Cualquier persona física o jurídica, que reciba subvención del Ayuntamiento de Arrasate deberá reflejarla en su contabilidad para lo cual dispondrán de los libros contables, registros diligenciados y/o demás documentos debidamente confeccionados en los términos exigidos por la legislación mercantil, sectorial o específica de las Administraciones Públicas
2. Atala. diruz laguntzeko gastu kontzeptuak	Sección 2. Gastos Subvencionables
50. artikulua. Dirulaguntza gastu kontzeptuak	Artículo 50. Gastos subvencionables
1. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak.	1. Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad o proyecto objeto de la ayuda municipal, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras de las subvenciones.
Denbora inputazioko irizpideari dagokionez, dirulaguntzak emateko deialdia arautzeko arau espezifikoek besterik xedatzen ez badute, ulertuko da gastuak (faktura sortzea eta fakturaren eguna) egiteko epea, oro har, urte naturala bukatzen denean, hau da, abenduaren 31n, bukatuko dela; edo, noizean behingo ekintzen eta ekintza berezien kasuan, dagokion udal akordioan zehazten den justifikazio epea bukatu baino lehen.	En relación con el criterio de imputación temporal, si las bases específicas reguladoras de la convocatoria de concesión de subvenciones no disponen lo contrario, se entenderá que el plazo para la realización de los gastos (devengo y fecha de la factura) termina, con carácter general, con el fin del año natural, 31 de diciembre o, en caso de actividades puntuales, con anterioridad a la finalización del plazo de justificación determinado en el correspondiente acuerdo municipal.
Halaber, gastu bat diruz laguntzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa bete behar da, bai azpikontratatzeko eskatutako baldintzak bai legezko testu beraren 31. artikuluan ezarritakoa.	Asimismo, para que un gasto sea considerado subvencionable deberá cumplirse lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en relación con los requisitos exigibles para la subcontratación, así como a lo establecido en el artículo 31 del mismo texto legal.
2. Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokionez, bestelakorik adierazi ezean programa espezifiko bakoitzaren oinarri-arauetan, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:	2. En relación con los conceptos de gasto susceptibles de subvención, salvo indicación en contrario en las bases reguladoras de cada programa específico, para determinada tipología de gasto se establecen las siguientes limitaciones:

- Taldearen, elkartearen edo erakundearen beraren administrazio, antolaketa kostuak edo kanpoko aholkularitzaren gastuak ez dira diruz lagungarriak izango, salbu-eta, zeregin horien zailtasuna dela tarteko, kanpoko aholkularitza kontratatzea edo zeregin horiek egiteko norbere pertsonal administratiboa kontratatzea beharrezkotzat jotzen denean.	- Costes internos de administración, organización y los de asesoramiento externo del club, asociación o entidad, no serán objeto de ayuda o subvención, salvo que, por su complejidad, se considere necesaria la contratación de la oportuna asesoría externa o la contratación de personal administrativo propio para llevar a cabo dichas tareas.
Dena den, salbuespen gisa, gastu kontzeptu hori diruz lagundu ahal izango da, baina horretarako, onuradunak behar bezala eskatu eta justifikatu beharko du beharra duela. Edozein kasutan, gastu kontzeptu horrek ezin izango du gainditu elkartearen %10aren kopurua elkartearen gastu guztiei buruz.	Por tanto, con carácter excepcional, dicho concepto de gasto podrá ser objeto de admisión, para lo cual por parte de la entidad beneficiaria se deberá proceder a la oportuna solicitud y justificación en relación con su necesidad, sin que, en ningún caso, el importe del mencionado gasto pueda suponer un importe superior al 10% de los gastos totales de la entidad.
- Ez dira onartuko Gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, betetzen ez badituzte arauzko baldintzak legezko balioko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko.	- No se admitirán Notas de gastos u otros documentos que no reúnan los requisitos reglamentariamente exigibles para ser considerados facturas o justificantes con validez legal.
Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak ematen badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta (BEZa, autonomoetan alta ematea, JEZ, eta abar), fakturaren ordezkari onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA), urte osoan kobratutako zenbatekoa guztira ez bada 500 euro baino handiagoa, eta gastu ohar edo gastu agiri guztiak batuta, faktura kontsideratzeko eskatu daitezkeen baldintzak betetzen ez dituztenak, ez badira entitatearen gastu guztien % 10 baino gehiago.	Con carácter excepcional, en los servicios o trabajos prestados, con carácter esporádico, por personas que no estén en condiciones de emitir la oportuna factura cumpliendo los requisitos legalmente exigibles (IVA, alta autónomos, IAE, etc.), se admitirá como sustitutivo de la factura la presentación del oportuno recibí por parte del preceptor, en el que conste el nombre y dos apellidos así como su DNI, siempre que el importe total cobrado a lo largo del año no supere la cantidad de 500 euros, y la suma de todas las notas de gasto o documentos que no reúnan los requisitos exigibles para ser considerados facturas no sea superior al 10% de los gastos totales de la entidad.
- Oro har, ez dira onartuko bazkari, afari kosturik, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kosturik, salbu modu nabarian (eta egoki justifikaturik) aurretik identifikatu izan direnak hasieran aurkeztutako proiektuan. Edozelan ere, horiek gorde beharko dute behar den proportzionaltasuna egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan barik entitatearen gastu guztien % 15 baino handiagoa, Udalak dirulaguntza emateko unean berariaz baimendutako salbuespenak izan ezik.	- Con carácter general, no se admitirán costes de comidas, cenas, servicios de hoteles o de hostelería, salvo aquellos que hubieran sido previamente identificados de forma inequívoca (y justificados oportunamente) en el proyecto inicialmente presentado. En todo caso, éstos deberán guardar la debida proporcionalidad entre el gasto realizado y el objetivo perseguido, sin que puedan suponer un importe superior al 15% de los gastos totales de la entidad., salvo excepciones expresamente autorizadas por el Ayuntamiento en el momento de la concesión de la subvención.

- Ez dira onartuko dirulaguntza izan dezaketen gastu moduan: kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastu partikularrak, eta abar. Kontzeptu horiek jaso daitezke atal bakar batean, “justifikatzen zailak diren gastuak” izenekoan, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango entitatearen gastu guztien % 10 baino handiagoa, Udalak dirulaguntza emateko unean berariaz baimendutako salbuespenak izan ezik.	- No se admitirán como gastos susceptibles de subvención los gastos de kilometrajes, combustible para vehículos, gastos particulares de servicios de telefonía, etc. Dichos conceptos, podrán ser recogidos en un único apartado denominado “gastos de difícil justificación” que no requerirá justificación documental alguna, y en ningún supuesto podrá suponer un importe superior al 10% de los gastos totales de la entidad, salvo excepciones expresamente autorizadas por el Ayuntamiento en el momento de la concesión de la subvención
51. artikulua. Zuzeneko eta zeharkako gastuak	Artículo 51. Gastos directos y gastos indirectos.
Oro har, diruz laguntzeko moduko gastutzat jotzen dira:	Se consideran, con carácter general, como gastos subvencionables:
a) Zuzeneko gastuak, diruz lagundutako jardueraren edo programaren garapenak berariaz eraginak.	a) Gastos directos, aquellos derivados específicamente del desarrollo de la actividad o programa subvencionados.
b) Zeharkako gastuak: onuradunak garatzen dituen zenbait jarduerari egotz dakizkiokeen kostu aldakorak, edo egiturazko kostuak, diruz lagundutako jarduera zehatzari zuzenean egotzi ezin bazaizkio ere hura egiteko beharrezkoak direnak. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, betiere hala aurreikusten badu dirulaguntzaren deialdiak edo lankidetzahitzarmenak.	b) Gastos indirectos, aquellos costes variables imputables a varias de las actividades que la beneficiaria desarrolla o bien costes de estructura que sin ser directamente imputables a la actividad concreta subvencionada, sean necesarios para que ésta se lleve a cabo. Serán gastos subvencionables siempre y cuando la convocatoria de la subvención o el Convenio de colaboración así lo prevean.
Onuradunari diruz lagundutako jarduera egotzeko irizpideari dagokionez, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauak erabiliko dira, arrazoizkoa den zatian, betiere jarduera egiaz egin den epeari badagozkio kostuok.	El criterio de imputación por la beneficiaria a la actividad subvencionada se realizará en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realice la actividad.
52. artikulua. Gastu handiagoak	Artículo 52. Gastos de superior cuantía.

1. Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu behar ditu onuradunak, kasu honetan izan ezik: dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen behar adina entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada, premiazko arrazoiak edo bestelakoak direla medio —espedientean behar bezala justifikatu behar dira—.	1. Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantías establecidas en la legislación vigente en materia de contratación para el contrato menor, el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención, por razones de urgencia o de otra naturaleza que deben quedar debidamente justificadas en el expediente.
2. Dagokion justifikazioarekin batera aurkeztu behar dira aurkeztutako eskaintzak, edo, dagokionean, dirulaguntzarako eskabidean. Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatu behar da aurkeztutako eskaintzen artean, eta ebaluazio-txostenean berariaz justifikatu behar da hautaketa, baldin eta ez bada diru aldetik onuragarriena aukeratu edo ez badago merkatuan dagokion zerbitzuaren behar adina hornitzailearik edo emailerik.	2. Las ofertas presentadas deberán aportarse con la justificación o, en su caso, en la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas deberá realizarse conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en la memoria evaluativa la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa, o la inexistencia en el mercado de diversidad de proveedores o prestadores del servicio de que se trate.
53. artikulua. Finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, aditu-gastuak eta administrazio-gastu espezifikokoak	Artículo 53. Gastos financieros, gastos de asesoría jurídica o financiera, gastos notariales y registrales, gastos periciales, y gastos de administración específicos.
1. Diruz laguntzeko modukoak dira diruz lagundutako proiektua gauzatzeko egindako finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, aditu-gastuak eta administrazio-gastu espezifikokoak, betiere zuzeneko lotura badute diruz lagundutako jarduerarekin eta ezinbestekoak badira hura prestatzeko edo egiteko.	1. Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, así como los gastos notariales y registrales, gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos son subvencionables siempre y cuando estén directamente relacionados con la actividad subvencionada y sean indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma.
2. Salbuespen gisa, diruz lagungarriak izan daitezke banku-bermeari dagozkion gastuak ere.	2. Excepcionalmente podrán ser subvencionables los gastos de garantía bancaria.
3. Inolaz ere ez dira hartu behar diruz laguntzeko moduko gastutzat:	3. En ningún caso se considerarán gastos subvencionables los siguientes:
a) Banku-kontuen interes zordunak.	a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Interesak, errekareruak eta zehapen administratibo eta penalak.	b) Los intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
c) Prozedura judizialen gastuak.	c) Los gastos de procedimientos judiciales.
54. artikulua. Zerga-gastuak	Artículo 54. Gastos de naturaleza tributaria.
1. Oro har, diruz laguntzeko moduko gastuak dira zergak, dirulaguntzaren onuradunak egiazki ordaindu baditu.	1. Con carácter general, los tributos son gastos subvencionables cuando el beneficiario de la subvención los abona efectivamente.
2. Dena dela, zeharkako zergak ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastutzat jo behar, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.	2. No obstante, en ningún caso se considerarán gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.
Balio erantsiaren gaineko zergari (BEZari) dagokionez, hauek bakarrik izango dira diruz laguntzeko moduko gastuak: onuradunak ordaindu dituen eta kostu erreala duten zenbatekoak —hau da, benetan onuradunak ordaindu dituenak— eta kengarriak ez direnak, hala baldin badira onuradunak berreskuratu egin baitezake zerga. Onuradunak modu frogagarrian justifikatu behar ditu gastuok.	En cuanto al Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) únicamente serán gastos subvencionables aquellas cantidades abonadas por la beneficiaria que representen un coste real, es decir que haya sido efectivamente abonado por el beneficiario, y que no sea deducible, puesto que de serlo, este impuesto sería recuperable por la beneficiaria, debiendo ésta justificarlo fehacientemente.
3. Halaber, inolaz ere ez dira hartu behar diruz laguntzeko moduko gastutzat errentaren gaineko zerga pertsonalak.	3. Igualmente, en ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos personales sobre la renta.
55. artikulua. Azpikontratazioa	Artículo 55. Subcontratación.
1. Onuradunak azpikontratatu egin duela jotzen da, baldin eta hirugarren batzuekin hitzartzen badu dirulaguntzaren xede den jarduera osoa edo zati bat.	1. Se entiende que una beneficiaria subcontrata cuando concierta con terceras personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituye objeto de la subvención.

2. Dirulaguntzaren deialdiak edo lankidetzahitzarmenak berariaz aurreikusten duenean soilik onartuko azpikontratazioa. Dirulaguntzaren deialdia, ebazpena edo esleipen-hitzarmena arautzen duten oinarrietan ezarri behar dute arautzaileek onuradunak hirugarren batzuekin azpikontrata dezakeen jardueraren gehieneko portzentajea. Azpikontratzen den jardueraren ehunekoak ez du inoiz gainditu behar dirulaguntzaren % 50, ohiz kanpoko kasuetan izan ezik; horiek dirulaguntza-deialdiaren oinarriak edo haiek zehazten dituen hitzarmena onetsi aurretik justifikatu beharko dira. Hirugarren batzuei azpikontratzen zaien jarduera dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, kontratua idatziz jartzea eskatu behar da, eta Udal honek berariaz eta aldez aurretik baimentzea hura.	2. Únicamente se admitirá la subcontratación cuando la convocatoria de la subvención o el convenio de colaboración expresamente lo prevean. El porcentaje máximo de la actividad subvencionada que el/la beneficiario/a subcontrate con terceros, vendrá fijada en las correspondientes bases reguladoras de la convocatoria, resolución o convenio de concesión de la subvención. El porcentaje de la actividad subcontratada nunca superará el 50% del importe de la subvención, salvo en casos excepcionales que deberán justificarse previamente a la aprobación de las bases de la convocatoria de subvención o del Convenio donde se especifiquen. Cuando la actividad subcontratada con terceros exceda del 20% del importe de la subvención y sea superior a 60.000 euros se exigirá que el contrato sea celebrado por escrito, y que la celebración del mismo se autorice expresa y previamente por este ayuntamiento.
3. Ezin da azpikontratatu jarduerarik, baldin eta diruz lagundutako jardueraren edukiari balio erantsirik gehitu gabe areagotzen badute haren kostua.	3. No podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.
4. Ezin dira zatitu kontratuak haiek zenbatekoa gutxitu eta aurreko apartatuan zehaztutako baldintzak betetzea saihestearren.	4. No podrá fraccionarse un contrato con el objeto de disminuir la cuantía del mismo y eludir el cumplimiento de los requisitos exigidos en el apartado anterior.
5. Onuradunarekikoak bakarrik dira kontratisten obligazioak, eta hari dagokio diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean.	5. Las/los contratistas quedarán obligadas/os sólo ante el/la beneficiario/a, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de la actividad subvencionada frente a la Administración.
6. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren ondoretarako, onuradunek arduratu behar dute diruz lagungarriak diren gastuen izaera eta zenbatekoaren mugak errespetarazteaz deialdiaren, hitzarmenaren edo ebazpenaren oinarri arautzaileetan; kontratistek, berriz, lagundu egin behar dute muga horiek betetzen diren egokiro egiaztatzen.	6. A efectos de lo previsto en el apartado anterior, las personas beneficiarias serán responsables de que en la ejecución de la actividad subvencionada concertada con terceros se respeten los límites que se establezcan en las bases reguladoras de la convocatoria, convenio o resolución, en cuanto a la naturaleza y cuantía de gastos subvencionables, y los/as contratistas estarán sujetos al deber de colaboración para permitir la adecuada verificación del cumplimiento de dichos límites.
7. Onuradunak ezin du, inolaz ere, diruz lagundutako jarduera osoa edo parte gauzatzea hitzartu hauekin:	7. En ningún caso podrá concertarse por la persona beneficiaria la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con:

a) Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko debekuren batek eragindako pertsonekin edo erakundeekin.	a) Personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.
b) Kontratutako jardura egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.	b) Personas o entidades que hayan percibido otras subvenciones para la realización de la actividad objeto de contratación.
c) Ordainketak eragiketaren guztizko kostuaren ehuneko gisa definitzen duten bitartekariekin edo aholkulariekin, egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatuko balioari dagokionez justifikatuta egon ezean ordainketa.	c) Intermediarias/os o asesoras/es en los que los pagos se definan como un porcentaje de coste total de la operación, a menos que dicho pago esté justificado con referencia al valor de mercado del trabajo realizado o los servicios prestados.
d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo erakundeekin, egoera hauetan izan ezik:	d) Personas o entidades vinculadas con la persona beneficiaria, salvo que concurran las siguientes circunstancias:
— Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.	— Que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado.
— Dirulaguntza eman duen organoaren alde aurreko baimena lortzea.	— Que se obtenga la previa autorización del órgano concedente.
e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu duten pertsona edo erakundeekin, baldintzak ez betetzeagatik edo behar besteko balorazioa ez lortzeagatik dirulaguntzarik eskuratu ez dutenekin.	e) Personas o entidades solicitantes de ayuda o subvención en la misma convocatoria y programa, que no hayan obtenido subvención por no reunir los requisitos o no alcanzar la valoración suficiente.
56. artikulua. aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeko aukera eta finantzaketa mugak	Artículo 56. Concurrencia con otras ayudas y límites de financiación
1. Oro har, eta laguntza programa bakoitzaren oinarri-arauek kontrakorik xedatu ezean, onartu egiten da udal dirulaguntza eta beste finantzabide batzuk aldi berean eta batera eskuratzeko aukera. Finantzabide horiek izan daitezke bai beste administrazio batzuetatik, partikularretatik eta abarretik jasotako dirulaguntzak, bai garatu nahi den proiektu edo jardura finantzatzeko ezarritako ekarpenak edo kuotak.	1. Con carácter general, y salvo que las bases de cada programa de ayudas dispongan lo contrario, se admite la posibilidad de concurrencia o compatibilidad de percepción de la subvención municipal con otras fuentes de financiación, bien sean ingresos por subvenciones procedentes de otras Administraciones, de particulares, etc., o se traten de aportaciones o cuotas fijadas para la financiación del proyecto o actividad que pretende ser llevada a cabo.

2 .Dirulaguntza honetaz gainera beste finantzabide batzuk lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoei bestelakorik ezarri ezean, finantzaketa muga egindako gastuaren %100 izango da, hau da, Udalaren dirulaguntzarekin ezin izango da, inondik ere, gain finantzaketarik egon.	2. En caso de concurrencia con otras fuentes de financiación, y salvo que las bases específicas establezcan otra regulación, el límite de financiación queda establecido en el 100% del gasto producido, esto es, no debe darse una sobrefinanciación con ayuda económica del Ayuntamiento.
Horri dagokionez, eta dirulaguntzak emateko udal akordioetan, berariaz, bestelako doitzeko erregularizazio sistemarik ez bada adierazten, udalak, dirulaguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gain finantzaketarik gertatu ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru sarreraren arabera, eta, hala badagokio, gerta daiteke ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak.	A este respecto, y salvo que en los acuerdos municipales de concesión de subvenciones se indique expresamente otro sistema de ajuste o regularización, en el pago final o liquidación de la subvención a realizar por el Ayuntamiento, a la vista de los gastos e ingresos realmente producidos, se efectuará la oportuna rectificación del importe a abonar, al objeto de que dicha sobrefinanciación no tenga lugar, con reintegro o devolución, en su caso, de parte o de la totalidad del anticipo abonado, si ello fuera necesario.
Edozelan ere, doitze hori egiteko, kontuan hartuko da hau guztia:	No obstante, cara a la práctica del citado ajuste, se tendrá en cuenta lo siguiente:
- Egoten bada gastuen bat onartu ez dena dirulaguntza moduan, eta aldi berean izan badu diru sarreraren bat gastu horiekin zuzenean zerikusia duena, gain finantzaketaren zenbatekoa kalkulatu eta gero, diru sarrera gutxitu egingo da.	- Caso de que existan gastos que no hayan sido admitidos como susceptibles de subvención que a su vez tengan ingresos directamente relacionados con los indicados gastos, deberá, con carácter previo al cálculo del importe de la sobrefinanciación, practicarse la oportuna minoración del ingreso.
- Udalaz gairik proiektuak izanez gero, hainbat udaleko finantzaturik, denboran errepikatu eta finkatutakoak, gain finantzaketaren egokitzeak eskatzen badu inplikaturiko administrazio guztien akordioa, hura atzeratu ahal izango da hurrengo ekitaldira arte.	- Caso de proyectos de carácter supramunicipal, financiados por diferentes ayuntamientos, de carácter repetitivo y consolidado en el tiempo, cuyo ajuste de la sobrefinanciación requiera del oportuno acuerdo de todas las administraciones implicadas, éste podrá ser pospuesto hasta el siguiente ejercicio.
II. KAPITULUA	CAPÍTULO II
AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA	PROCEDIMIENTO DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA
1. Atala. Gastua onartzea.	Sección 1. Aprobación del gasto.
57. artikulua. Gastuaren onarpena	Artículo 57. Aprobación del gasto

1. Dirulaguntzen deialdia egin, haiek zuzenean esleitu edo hitzarmenak formalizatu aurretik, gastua onartu behar da, aplikagarri den aurrekontu-araudiaren arabera.	1. Previamente a la convocatoria de las subvenciones, concesión directa de las mismas o la formalización de los convenios, deberá efectuarse la aprobación del gasto conforme a la normativa presupuestaria aplicable.
2. Dirulaguntza emateko ebazpenak edo hitzarmenak sinatzeak berekin dakar dagokion gastua egiteko konpromisoa onartzea eta obligazioa aitortzea.	2. La resolución de la concesión de subvenciones o la firma de los convenios llevará consigo el compromiso del gasto correspondiente, así como, el reconocimiento de la obligación.
2. Atala. Modua eta epeak dirulaguntza ordaintzeko. Aurrerakinak izateko aukera	Sección 2. Forma y plazos de abono de la subvención. Posibilidad de anticipos
58. artikulua.	Artículo 58.
Dirulaguntza zertarako eman zen eta helburu hori bete izana justifikatu eta gero ordainduko du Udalak dirulaguntza. Horretarako, aurrekontuan jasotako eta organo eskudunek onartutako kopuruak eta portzentajeak hartuko ditu erreferentziatzat. Dirulaguntza entitate titular eskatzaileari ordainduko zaio, eskabide eredian hark emandako datuen arabera..	El abono de la subvención se realizará, previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió, tomando como referencia las cuantías y los porcentajes, respecto del presupuesto presentado, aprobados por los órganos competentes y se librá a la entidad titular solicitante de la misma, de conformidad con los datos facilitados por ésta en el modelo de solicitud presentado.
59. artikulua	Artículo 59.
Dirulaguntza ordaintzeko, kontuan hartuko dira diruz lagundutako jardueraren edo programaren ezaugarriak eta finantza beharrak.	Para el pago de la subvención se tendrá en cuenta las características y necesidades financieras derivadas de la actividad o programa subvencionado.
Oro har, konturako aurrerakinez ordaintzeko aukera onartzen da. Konturako ordainketa horiek zatikako ordainketak izan daitezke, diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko erritmoaren arabera, eta aurkeztutako justifikazioaren zenbateko baliokidea ordainduko da.	Con carácter general, se admite la posibilidad de pago de anticipos a cuenta. Dichos abonos a cuenta podrán consistir en pagos fraccionados, que responderán al ritmo de ejecución de las acciones subvencionadas, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada.
Aurrerakinek berekin ekarriko dute justifikatu aurretik funtsak ematea, dirulaguntzari datxezkion jarduketak egin ahal izateko finantzaketa gisa, hala zehazten bada dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan, norgehiagoka-araubideko dirulaguntzen kasuetan, edo hala xedatzen bada onartutako hitzarmenetan, dirulaguntzen gainerako kasuetarako. Azken zatia ordaintzeko, egindako gastua justifikatu beharko da.	Los anticipos supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, si así se determina en las bases reguladoras de la subvención, en los supuestos de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva, o si así se dispone en los convenios adoptados, para el resto de supuestos de subvenciones. El abono de la parte final quedará condicionado a la justificación del gasto realizado.

Ordaindutako aurrerakina emandako dirulaguntza osoagatik bada, dirulaguntza emateko udal-erabakiak nahitaez adierazi beharko du ordaindutako aurrerakinaren xedea justifikatzeko azken eguna, ordenantza honen eskatutako dokumentazioaren arabera.	Si el anticipo abonado hubiera sido por la totalidad de la subvención concedida, el acuerdo municipal de concesión deberá forzosamente indicar la fecha límite de justificación del destino del anticipo abonado, de conformidad con la documentación requerida en esta Ordenanza.
Oinarri arau espezifikoetan beste kopururik adierazten ez bada, ordainketak honela egingo dira:	Salvo que en las bases específicas se señalen otras cantidades, se procederá al abono de la siguiente forma:
- Onartutako kopuruaren %60, justifikatu beharreko aurrerakin gisara, onuradunak dirulaguntza onartutakoan eta gehienez ere hilabeteko epean, akordioa hartzen den egunetik zenbatzen hasita.	- 60% de la cantidad aprobada, en concepto de anticipo a justificar, una vez aceptada por la persona o entidad beneficiaria la subvención concedida y en el plazo máximo de un mes contado a partir de la adopción del oportuno acuerdo.
- Gainerako %40, organo eskudunak dirulaguntzaren likidazioa onartutakoan, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero.	- 40% restante, una vez aprobada por el órgano competente la liquidación de la subvención, esto es, con posterioridad a la entrega de la documentación y justificación completa y correcta del programa o actividad subvencionada.
Ezingo zaie egin ordainketa aurreraturik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34.4 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten onuradunei.	En ningún caso podrán realizarse pagos anticipados a los beneficiarios que se encuentren dentro de las condiciones previstas en el artículo 34.4 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu aurrekontua baino txikiagoa bada, oinarri-arau espezifikoei beste arauketarik xedatu ezean, dirulaguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori, benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko.	En el supuesto de que la liquidación presentada fuera por importe inferior al presupuesto de gastos inicialmente presentado, y salvo que las bases específicas dispongan otra regulación, se minorará la subvención aplicando un coeficiente corrector consistente en el porcentaje del importe realmente ejecutado en respecto del importe inicial solicitado y aprobado.
III. KAPITULUA	CAPITULO III
DIRULAGUNTZAREN XEDEAREN JUSTIFIKAZIOA	JUSTIFICACIÓN DEL DESTINO DE LA SUBVENCIÓN
60. artikulua. Dirulaguntza egiaztatzea	Artículo 60. Comprobación de la subvención

Kontu-hartzailetzako udal-sailak egin beharreko fiskalizazioa eta egiaztapena alde batera utzi gabe, dirulaguntza eman duen organoari dagokio, hura izapidetzeko ardura duen administrazio-unitateak txostena egin ondoren, dirulaguntza behar bezala justifikatu dela egiaztatzea, bai eta jarduera egin dela eta emandako dirulaguntzarekin lortu nahi den helburua bete dela egiaztatzea ere, eta, horrela, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea dagoen ala ez egiaztatuko da.	Sin perjuicio de la oportuna fiscalización y comprobación que deba realizarse por el departamento municipal de Intervención, corresponderá al órgano concedente de la subvención, previo informe de la unidad administrativa responsable de su tramitación, la comprobación de la adecuada justificación de la subvención, así como de la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad perseguida con la subvención otorgada, quedando acreditado así el derecho o no al cobro de la subvención concedida.
61. artikulua. Justifikazioa	Artículo 61. Justificación
Dirulaguntzen onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako dirua, dirulaguntza ematearen oinarrian zegoen helbururako erabili dutela.	1. Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar el destino de los fondos percibidos a la finalidad que sirvió de fundamento para la concesión de la subvención.
2. Laguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoek beste agiri gehigarri batzuk ezarri baditzaizkete ere, lortutako dirulaguntza justifikatzeko agiri hauek aurkeztu behar dira:	2. Sin perjuicio de que las bases específicas de cada programa de ayuda puedan establecer otra documentación adicional, para la justificación de la subvención obtenida deberá presentarse la siguiente documentación:
A). Udalaren dirulaguntzak 40.000 eurotik gorakoak direnean:	A)- Para el caso de subvenciones municipales por importe superior a 40.000 euros.
• Jarduera orokorraren egoera-balantzea	• Balance de situación de la actividad general
• Jarduera orokorraren galdu-irabazien kontua	• Cuenta de pérdidas y ganancias de la actividad general
Bi dokumentu horiek enpresa eskudun batek ikuskatuta aurkeztu beharko dira, dagokion erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta. 60.000 euroko muga gainditzen ez den kasuetan, Pertsona edo erakunde onuradunek, laguntza-programa berean, aurreko urtean dokumentu horiek ikuskatuta aurkeztu badituzte, ez dute auditatutako dokumentazioa aurkeztu beharko, salbu eta, Udalak berariaz eskatzen ez badiote.	Estos dos documentos deberán presentarse auditados por empresa competente, debidamente inscrita en el correspondiente registro oficial. En el caso de que el importe no sea superior a 60.000 euros, las personas o entidades beneficiarias que, en el mismo programa de ayuda, el año anterior hayan presentado estos documentos auditados, no tendrán que presentar la documentación auditada, salvo que el Ayuntamiento expresamente les haya solicitado.
• Egindako gastuak eta diru-sarrerak (erakundearen jarduera orokorrean diruz lagundutako proiektuak eta laguntzarik jaso ez duten proiektuak aldi berean gertatzen badira).	• Gastos e ingresos producidos (en caso de coexistencia en la actividad global de la entidad de proyectos subvencionados junto con proyectos que no han sido objeto de ayuda)

Gastu eta diru-sarrera horietan, dirulaguntzaren xede den jardueran benetan izandako gastuak eta diru-sarrerak adierazi beharko dira, eta, horrekin batera, dagozkion gastu- eta sarrera-egozpenak egiteko erabilitako irizpideen deskribapena.	En estos gastos e ingresos habrá que hacer indicación de los gastos e ingresos realmente producidos en la actividad objeto de subvención, conjuntamente con la descripción de los criterios utilizados para llevar a cabo las imputaciones de gasto e ingreso que procedan.
• Dirulaguntzaren xede izan diren eta gauzatu diren jardueren azalpen-memoria, lortutako emaitzen balorazioarekin batera.	• Memoria explicativa de las actividades objeto de subvención que hayan sido llevadas a cabo, junto con una valoración de los resultados obtenidos.
B) Udalaren dirulaguntza 40.000 eurotik beherakoa denean, onuradunek bi aukera hauetako bat erabili ahal izango dute justifikazioa egiteko:	B) Subvenciones por importe inferior a 40.000 euros. Las personas o entidades beneficiarias de la subvención podrán optar por efectuar la justificación mediante alguna de estas dos posibilidades:
B.1.- Artikulu honetako 2. zenbakiko a) letzan deskribatutako dokumentazioa. Hau da:	B.1.- La documentación descrita en el nº 2, letra a) de este artículo. Esto es:
• Jarduera orokorraren egoera-balantzea	• Balance de situación de la actividad general
• Jarduera orokorraren galdu-irabazien kontua	• Cuenta de pérdidas y ganancias de la actividad general
Bi dokumentu horiek enpresa eskudun batek ikuskatuta aurkeztu beharko dira, dagokion erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.	Estos dos documentos deberán presentarse auditados por empresa competente, debidamente inscrita en el correspondiente registro oficial
• Onuradunaren jarduera orokorraren azalpen-memoria.	• Memoria explicativa de la actividad global de la persona beneficiaria.
• Dirulaguntzaren xede izan diren eta gauzatu diren jardueren azalpen-memoria, lortutako emaitzen balorazioarekin batera	• Memoria explicativa de las actividades objeto de subvención que hayan sido llevadas a cabo, junto con una valoración de los resultados obtenidos.
B.2.- Honako agiri hauek:	B.2.- La siguiente documentación:
• Diruz lagundutako jardueren azalpen-memoria, dokumentazio grafikoarekin batera (kartelak, programak, publizitatea, etab.) eta ikus-entzunezko dokumentazioarekin batera (bideoak, argazkiak, etab.), halakorik balego.	• Memoria explicativa de las actividades objeto de subvención que hayan sido llevadas a cabo, junto con documentación gráfica (carteles, programas, publicidad, etc...) y audiovisual (videos, fotos, etc...), si la hubiera.
• Izandako gastuen eta diru-sarreraren zerrenda	• Relación gastos e ingresos habidos
• Egindako gastuen fakturak.	• Facturas de los gastos habidos
• Egindako jarduerekin lortutako emaitzen	• Valoración de los resultados obtenidos

balorazioa.	con las actividades llevadas a cabo
C) 10.000 euro baino zenbateko txikiagoko dirulaguntzak:	C) Subvenciones por importe inferior a 10.000 euros:
Oinarri-arau espezifikoek beste erregulazio bat ezartzen ez badute, mekanismo sinplifikatu bat ezarri da dirulaguntzak justifikatzeko, zeina justifikatu daitekeen laginketa tekniken bidez. Hala, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:	Salvo que las bases específicas establezcan otra regulación, se establece un mecanismo simplificado de justificación consistente en la posibilidad de ser justificadas mediante técnicas de muestreo. Así, deberán presentar la siguiente documentación:
Jardueraren memoria, erakundearen ordezkariak sinatua.	Memoria de la actividad firmada por el representante de la entidad.
Gastuen eta diru-sarreraren zerrenda, erakundearen ordezkariak sinatua.	Relación de gastos e ingresos firmado por el representante de la entidad.
Gastuen zerrenda horretatik egiaztatuko da, lagina batera aukeratu du dirulaguntza kudeatzen duen sailak, eskatu daitekeen gutxieneko izaerarekin, deklaraturako gastuen zenbateko osoaren % 30 baino handiagoko gastu portzentaje bat. Halaber, justifikazioaren testuinguruan sortutako gorabeheretan, faltsutzeagatik, zehaztasun faltagatik edo zuzentasun faltagatik deklaraturako gastu zerrendari buruz, penalizazioaren bat izango da, bai ekitaldiko dirulaguntzaren likidazioan, bai hurrengo bi ekitaldietan laguntzak jasotzeko eskubidean (zigor prozedura izapidetu ondoren, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan adierazitakoaren arabera).	De dicha relación de gastos se verificará, previa elección conjunta del departamento gestor de la subvención, con carácter de mínimo exigible, un porcentaje de gastos superior al 30% del importe total de gastos declarados. Asimismo, las incidencias surgidas en el contexto de la justificación, por falsedad, inexactitud o incorrecciones respecto de la relación de gastos declarada, será objeto de la oportuna penalización tanto en la liquidación de la subvención del ejercicio como cara al derecho a obtención de ayudas en los dos ejercicios siguientes (tras la correspondiente tramitación del oportuno procedimiento sancionador, según lo señalado en el Título IV de la Ley 38/2003 General de Subvenciones).
D) Halaber, helburu jakin baterako dirua biltzeko diren dirulaguntzetan (adibidez, aipatu ditzakegu Kilometroak, Santa Agedako koruak eta antzekoak), ez da aurkeztu behar izango jatorrizko fakturarik edo dokumenturik, eta dokumentazio hori aurkeztu barik, dirulaguntzaren onuradunek bidali dezakete ekintza egitean sortu diren gastu eta diru sarreraren balantzearen zenbaki laburpen bat.	D) En los supuestos de concesión de subvenciones cuya finalidad sea la recaudación de fondos para un destino concreto (a título de ejemplo, podrían citarse casos como Kilometroak, Santa Agedako Koruak, y análogos) no será necesaria la presentación de facturas o documentos originales, pudiendo sustituirse dicha documentación por la remisión, por parte de los beneficiarios de la subvención, de un resumen numérico del Balance de gastos e ingresos derivados de la celebración del acto.
E) Udalaz gairik ere eremuko proiektuak egiten dituzten onuradunek, baldin eta dirulaguntza ez bada 5.000 euro baino handiagoa eta, aldi berean, emandako udal laguntza ez bada diruz lagundutako jardueraren aurrekontu osoaren % 5 baino handiagoa, aurkeztu ahal izango dute ekitaldian egindako jardura globaleko memoria, eta horri	E) Los beneficiarios que desarrollen proyectos de ámbito supramunicipal, cuyo importe de subvención no exceda de 5.000 euros y a su vez la ayuda municipal concedida no supere el 5% del presupuesto total de la actividad subvencionada, podrán presentar solamente la memoria de la actividad global desarrollada a lo largo del

gehituko zaio laguntza jaso duen ekintzaren proiektu espezifikoaren memoria, azken horren informazio ekonomikoarekin batera (gastuen eta diru sarreraren zerrenda, balantzea eta galera-irabazien kontua).	ejercicio más, en su caso, la memoria de la actividad relativa al proyecto específico objeto de ayuda, junto con la información económica correspondiente (relación de gastos e ingresos, balance y cta. de pérdidas y ganancias).
62. artikulua. Erakunde laguntzaileek kudeatutako dirulaguntzen justifikazioaren berezitasunak.	Artículo 62. Peculiaridades de la justificación de subvenciones gestionadas por entidades colaboradoras.
1. Erakunde laguntzaileek kudeatutako dirulaguntzen justifikazioa jasotako funtsak onuradunei eman zaizkiela egiaztatzeari buruzkoa da, bai eta erakunde emaileari onuradunek aurkeztutako justifikazioa aurkezteari buruzkoa ere. Justifikazio hori ez da soilik onuradunek funtsak aplikatzera zabalduko, baizik eta haiek kobratzeko baldintzak betetzera ere bai, lankidetzahitzarmenean xedatutakoaren arabera.	1. La justificación de las subvenciones gestionadas por entidades colaboradoras se refiere tanto a la acreditación de la entrega a las beneficiarias de los fondos recibidos, como a la presentación ante la entidad concedente de la justificación aportada por los beneficiarios, que se extenderá no sólo a la aplicación de los fondos por los mismos sino también al cumplimiento de las condiciones para el cobro por aquéllos, en función de lo dispuesto en el Convenio de Colaboración.
2. Erakunde laguntzaileak, halaber, Arrasateko Udalak udal-funtsen kudeaketari buruz egin ditzakeen egiaztapen-jarduketak onartu beharko ditu, bai eta finantza-egiaztapen eta -kontrolako beste edozein jarduketa ere, eta jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.	2. La entidad colaboradora estará obligada, igualmente, a someterse a las actuaciones de comprobación que respecto de la gestión de los fondos municipales pueda efectuar el Ayuntamiento de Arrasate, así como de cualesquiera otras de comprobación y control financiero, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones citadas.
63. artikulua. Justifikazio epea	Artículo 63. Plazo de justificación
1. Dirulaguntzaren deialdiak eta, hala badagokio, lankidetzahitzarmenak dirulaguntzen justifikazioa emateko epea zehaztuko dute.	1. La convocatoria de la subvención y, en su caso, el convenio de colaboración, especificarán el plazo de rendición de la justificación de las subvenciones.
2. Deialdian eta lankidetzahitzarmenean ez bada adierazten dirulaguntza justifikatzeko epea, gehienez ere hiru hilabetekoa izango da, jarduera egiteko epea amaitzen denetik aurrera.	2. En el caso de que ni la convocatoria ni el convenio de colaboración expresen el plazo para la justificación de la subvención, éste será, como máximo, de tres meses desde la finalización del plazo para la realización de la actividad.
64. artikulua. Justifikatutako gauzatze-maila	Artículo 64. Grado de ejecución justificado
Onuradunak aurkeztutako zuriaketarekin bat, erreparatu beharko zaio laguntza eskaeran jasotako aurrekontuaren eta benetan gauzatutako eta zuritutako kopuruaren arteko aldeari, bai eta proiektuen betetze mailari ere.	De acuerdo con la justificación presentada por el beneficiario, se deberá observar la diferencia entre el presupuesto recogido en la solicitud de ayuda y la cantidad realmente ejecutada y justificada, así como el grado de ejecución de los proyectos.

Horiek horrela, exekuzio maila hauek kontuan izango dira:	Así, se tendrán en cuenta los siguientes niveles de ejecución:
- Elkarreak azaldutako eta justifikatutako kostea baldin bada hasierako aurrekontuaren % 75 eta % 100 bitartekoa, eta, beti ere, hasiera baten jasotako jarduera, egitaraua edota helburuak nabarmenki betetzea egiaztatzen bada, laguntzaren xedea osotasunean bete dela ulertuko da.	- Si el coste formulado y justificado por la Asociación oscila entre el 75% y el 100% del presupuesto inicial, y siempre que se acredite un cumplimiento significativo de la actividad, programa u objetivos inicialmente contemplados, se considerará que el objeto de la ayuda se ha cumplido en su totalidad.
- Elkarreak azaldutako eta justifikatutako kostea baldin bada hasierako aurrekontuaren % 60 eta % 75 bitartekoa, eta hasiera batean jasotako jarduera, egitarau edota helburuak maila altuan betetzea egiaztatzen bada, laguntza % 75 artekoa izango dela ulertuko da.	- Si el coste formulado y justificado por la Asociación oscila entre el 60% y el 75% del presupuesto inicial y se acredita el cumplimiento de las actividades, programas y/u objetivos inicialmente contemplados, se considerará que la ayuda va a alcanzar el 75%.
- Elkarreak azaldutako eta justifikatutako kostea baldin bada hasierako aurrekontuaren % 40 eta % 60 artekoa, eta hasiera batean jasotako jardueren, egitarauen edota helburuen erdiak betetzea egiaztatzen bada, laguntza % 50 artekoa izango dela ulertuko da.	- Si el coste formulado y justificado por la Asociación oscila entre el 40% y un 60% del presupuesto inicial, y se acredita el cumplimiento de la mitad de las actividades, programas y/o objetivos inicialmente contemplados, la ayuda se considerará de hasta un 50%.
Kasu honetan, eta emandako aurrerakina onartutako dirulaguntzaren %50a baino handiagoa bada, itzulketa prozedura jarraituko da.	En este caso, si el anticipo concedido fuera superior al 50% de la subvención concedida, se seguirá el procedimiento de reintegro.
- Exekuzio maila % 40 baino txikiagoa baldin bada, laguntzaren obligazioa ez dela bete kontsideratuko da.	- Si el grado de ejecución es inferior al 40%, se considerará incumplimiento de la obligación de la ayuda.
65. artikulua. Eskaerak birformulatzea	Artículo 65. Reformulación de solicitudes
Dirulaguntza edo hitzarmen baten helburua onuradunak jarduerak egitea bada, interesdunak ezin izango du hura birformulatzeko eskatu, baldin eta lortutako laguntzaren zenbatekoa eskabidean agertzen zena baino txikiagoa bada.	Cuando una subvención o convenio tenga por objeto la realización de actividades por la beneficiaria, no podrá instarse su reformulación por el interesado en el caso en que la ayuda obtenida sea de importe inferior a la que figuraba en la solicitud formulada.
66. artikulua. Justifikatzeko betebeharra ez betetzearen ondorioak	Artículo 66. Efectos del incumplimiento del deber de justificación

Dirulaguntzak justifikatzeari buruz dokumentazioa aurkeztu ezean epe barruan, horrek ekarriko du, beste izapiderik egin barik, eskubidea galtzea likidatzeko dagoen dirulaguntzaren diru kopurua kobratzeko, baita ere, dagokion udal sailak ofizioz hastea espediente bat, zeinak egiaztatuko duen dirulaguntzako jardura egin den edo ez (osorik edo zati batean), eta, hala badagokio, egokia den edo ez itzultzea ordainduta dauden aurrerakinak, osorik edo zati bat.	La no presentación en plazo de la documentación relativa a la justificación de las subvenciones, supondrá, sin más trámite, la pérdida del derecho al cobro del importe de subvención que se encuentre pendiente de liquidación, así como el inicio, de oficio, por parte de la unidad administrativa correspondiente del Ayuntamiento, de un expediente tendente a comprobar si la actividad objeto de subvención se ha realizado o no (total o parcialmente), y si, en su caso, procede o no el reintegro, total o parcial, de los anticipos que hubieran sido abonados.
Halaber, errekerituz gero argibideak aurkeztutako justifikazioari buruz edo laguntza kudeatzen duen sailaren txosten teknikoak, ebakutzeari buruzkoa, detektatzen baditu akatsak egokitze edo desbideraketa esanguratsua dutenak hasieran emandako laguntzaren artean eta haren bukaerako likidazio proposamenaren artean, laguntza kudeatzen duen sailak entitate onuradunei emango die, udal erabakia hartu baino lehenago, 7 egun naturaleko epe bat, akats horiek konpontzeko edo bidezkoztat jotzen diren argibideak edo justifikazioak aurkezteko. Hori guztia, kontuan izanik errekurtsio bideak daudela eta jarri daitezkeela udal erabakien edo akordioen aurka.	Asimismo, en el supuesto de requerirse aclaraciones respecto de la justificación presentada o de que el informe técnico a evacuar por el departamento gestor de la ayuda, detecte deficiencias que puedan suponer un ajuste o desviación significativa entre la ayuda inicialmente concedida y la propuesta de liquidación final de la misma, por el departamento gestor de la ayuda se otorgará a las entidades beneficiarias, con carácter previo a la adopción de la resolución municipal que proceda, un plazo de 7 días naturales para que puedan subsanarse las mencionadas deficiencias o presentar cuantas aclaraciones o justificaciones se estimen oportunas. Todo ello, sin perjuicio de las vías de recurso que procedan contra las resoluciones o acuerdos municipales que finalmente puedan adoptarse.
IV. KAPITULUA	CAPÍTULO IV
DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA	REINTEGRO DE SUBVENCIONES
67. artikulua. Emateko ebazpenaren baliogabetasuna.	Artículo 67. Invalidez de la resolución de concesión.
Dirulaguntzak emateko ebazpena baliogabea izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako deuseztasun- edo deuseztagarritasun-kasuak gertatzen direnean, edo krediturik ez dagoenean edo kreditu nahikorik ez dagoenean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren arabera.	Tendrá lugar la invalidez de la resolución de la concesión de subvenciones cuando concurren los supuestos de nulidad o anulabilidad establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento administrativo Común de las Administraciones Públicas o exista carencia o insuficiencia de crédito de conformidad con la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Deuseztasun- edo deuseztatze-deklarazio judizial edo administratiboak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra.	La declaración judicial o administrativa de nulidad o anulación llevará consigo la obligación de devolver las cantidades percibidas.
68. artikulua.— Itzultzeko arrazoiak	Artículo 68. Causas de reintegro
Jasotako kopuruak itzuli egin behar dira eta, dagokionean, ordaindu gabeko obligazioak deuseztatu, aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetan ez ezik, kasu hauetan ere:	Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y, en su caso, la anulación de obligaciones pendientes de pago, además de en los supuestos previstos en el artículo anterior, en los siguientes:
a) Beharrezko baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza lortzea eragotziko luketenak ezkutatzuz lortzen bada dirulaguntza.	a) Obtención de subvención falseando las condiciones requeridas u ocultando aquellas que lo hubiesen impedido.
b) Dirulaguntza emateko aurkeztu den helburua, jarduera edo proiektua osorik edo zati batean betetzen ez bada edo emateko arrazoietan ageri denari jarraikiz jokatzeko ez bada. Horri dagokionez, ordenantza honetan ezarritako irizpideei jarraituko zaie.	b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamenta su concesión. A este respecto, se estará a los criterios establecidos en esta Ordenanza.
c) Justifikatzeko obligazioa Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoari jarraikiz betetzen ez bada edo aurkeztutako justifikazioa nahikoa ez bada.	c) Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente en los términos del artículo 30 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
d) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18.4 artikuluko zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.	d) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión del artículo 18.4 de la Ley General de Subvenciones.
e) Finantzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko jardueri aurka egiten bazaie, aitzakiak nahiz oztopoak jartzen bazaizkie edo uko egiten bazaie, edota kontabilitate-, erregistro- nahiz kontserbazio-betebeharrak betetzen ez badira eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako funtsei zein erabilera eman zaien edo dirulaguntzaren helburua bete den.	e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos recibidos o el cumplimiento del objetivo de la subvención.
f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei ezarritako betebeharrak eta horiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira.	f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades colaboradoras y a las beneficiarias, así como los compromisos por éstas asumidos.
g) Dirulaguntzen Lege Orokorreko 37. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan.	g) En los demás supuestos previstos en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.
69. artikulua. Gehiegizko finantzaketa	Artículo 69. Exceso de financiación

Emandako dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoa, bakarrik edo administrazio publikoek edo erakunde publiko edo pribatuak, estatukoak zein atzerrikoak, emandakoekin batera, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa bada, egindako jardueraren kostuaren gainetik lortutako zenbatekoa itzuli beharko da.	Cuando el importe de las subvenciones o ayudas otorgadas, aisladamente o en concurrencia con la de otras concedidas por administraciones públicas o de entes públicos o privados, nacionales o extranjeros, exceda del coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.
Bi administrazio publikoren edo gehiagoren dirulaguntzak pilatuz gero, aurreko paragrafoan aipatutako soberakina gertatuz gero, haiek emandako zenbatekoak hainbanatuta aplikatuko dira.	En caso de concurrencia de subvenciones de dos o más administraciones públicas, supuesto el exceso al que se refiere el párrafo anterior, el reintegro se aplicará mediante prorrateo de las cantidades otorgadas por aquellas.
Itzuli beharreko zenbatekoak premiamendubidez eskatu ahal izango dira, itzulketa zehaztutako epeetan egiten ez bada.	Las cantidades a reintegrar podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos que se determinen.
70. artikulua. Itzuli beharreko kredituaren izaera	Artículo 70 Naturaleza del crédito a reintegrar.
1. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira kobrantzari begira, eta, xede horrekin, haiek aplikatuko dira: Toki Erakundearen Aurrekontuak buruzko Foru Araua, Zergei buruzko Foru Araua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua. Itzultzeko prozedura, administratiboa izango da.	1. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público para su cobranza, aplicándose la Norma Foral Presupuestaria de las Entidades Locales, la Norma Foral Tributaria y Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa para ello; el procedimiento de reintegro tendrá carácter administrativo.
2. Jasotako dirua itzultzeko, berandutze-interesa eskatuko da, dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den arteko epeari dagokiona, alegia.	2. El reintegro de las cantidades percibidas llevará aparejada la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro.
71. artikulua. Preskripzioa	Artículo 71. Prescripción.
Dirulaguntzen itzulketa onartzeko edo likidatzeko eskubidea lau urteren buruan preskribatuko da.	Prescribirá a los cuatro años el derecho a reconocer o liquidar el reintegro de las subvenciones.
Epea kontatzeko eta preskripzioa eteteko, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.	El cómputo del plazo y la interrupción de la prescripción se regirán por lo dispuesto en el artículo 39 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
72. artikulua. Itzultzeraren behartuak	Artículo 72. Obligadas al reintegro

Onuradunak eta erakunde laguntzaileak egongo dira itzultzera behartuta, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan eta Ordenantza honetan xedatutakoari jarraikiz.	Estarán obligadas al reintegro las personas o entidades beneficiarias y entidades colaboradoras, con las prescripciones establecidas en el artículo 40 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, Ley General de Subvenciones y en esta Ordenanza.
73. artikulua. Itzultzeko prozedura ebazteko eskumena	Artículo 73. Competencia para la resolución del procedimiento de reintegro.
Dirulaguntza eman duen organoak izango du onuradunari edo entitate laguntzaileari dirulaguntzak itzultzea eskatzeko eskumena, Ordenantza honetan ezarritako itzultzeko kasuren bat dagoela ikusten badu.	El órgano concedente de la subvención será el competente para exigir de la persona o entidad beneficiaria o de la entidad colaboradora el reintegro de subvenciones cuando aprecie la existencia de alguno de los supuestos de reintegro establecidos en esta Ordenanza.
V. kapitulua	CAPÍTULO V
ITZULTZEKO PROZEDURA	PROCEDIMIENTO DE REINTEGRO
74. artikulua. Legeria aplikagarria	Artículo 74. Legislación aplicable.
Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluko administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrekin arautuko dute, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako berezitasunak ukatu gabe.	El procedimiento de reintegro de subvenciones se regirá por las disposiciones generales sobre procedimientos administrativos en el título IV de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento administrativo común de las Administraciones públicas, sin perjuicio de las especialidades establecidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
75. artikulua. Prozeduraren hasiera	Artículo 75. Inicio del procedimiento.
Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak erabakita (dela bere ekimenez, dela goragoko baten aginduz), beste organo batzuen arrazoitutako eskaera bidez edo salaketaren ondorioz. Izapidetzeko ardura duen administrazio-unitatearen txostenaren edo Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiak emandako finantza-kontrolleko txostenaren ondorioz ere hasiko da.	El procedimiento de reintegro de subvenciones se iniciará de oficio por acuerdo del órgano competente, bien por propia iniciativa, bien como consecuencia de orden superior, a petición razonada de otros órganos o por denuncia. También se iniciará a consecuencia del informe de la unidad administrativa responsable de su tramitación o del informe de control financiero emitido por la Intervención General Municipal.
76. artikulua. Ordainketak atxikitzea	Artículo 76. Retención de pagos.

Kautelazko neurri moduan, onuradunari ordaintzeko aginduak etetea erabaki ahal izango du dirulaguntza ematen duen organoak (itzultzeko prozedura hastea erabaki ondoren) edo agintari ordaintzaileak. Itzulketa-espedientea hasteko ebazpenean finkatutako zenbatekoa hartuko da aintzat, bai eta ordura arte sortutako berandutze-interesak ere. Hori guztia arrazoituta egin beharko da, eta onuraduna jakinaren gainean ipinita. Horrek aukera izango du dagozkion errekursoak jartzeko.	Como medida cautelar, el órgano concedente de la subvención, una vez acordado el inicio del procedimiento de reintegro, o bien la autoridad pagadora, podrá acordar la suspensión de los libramientos de pago al beneficiario por el importe que fije la resolución de inicio del expediente de reintegro y con los intereses de demora devengados hasta la fecha, lo cual debe efectuarse de forma motivada y con notificación al beneficiario, con independencia de los recursos pertinentes.
Atxikipenak proportzionala izan behar du, eta ebazpena eman arte eutsi behar zaio, tramitatzeko ezartzen den epea gainditu gabe. Hura justifikatzen zuten arrazoiak desagertzen badira, ordea, deuseztatu egin beharko da atxikipena, eta haren ordeaz, behar adinako bermea eratuko da, onuradunak eskatzen badu.	Dicha retención deberá ser proporcional, mantenerse hasta que se dicte resolución sin superar el período que se fija para su trámite, deberá levantarse cuando desaparezcan las causas que en su caso la justificaba, pudiendo ser sustituida a solicitud del beneficiario por la constitución de una garantía suficiente.
77. artikulua. Interesdunari entzutea	Artículo 77. Audiencia de la persona o entidad interesada.
Itzulketa-prozedura izapidetzean, interesdunak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da beti.	En la tramitación del procedimiento de reintegro se garantizará, en todo caso, el derecho de la persona o entidad interesada a la audiencia.
78. artikulua. Ebazpena	Artículo 78. Resolución.
1. Ebazpena arrazoitua izan beharko da, eta berariaz adierazi beharko da dirua itzuli beharra eragin duen arrazoa edo arrazoiak, itzuli beharreko zenbatekoaren kuantifikazioa eta itzultzeko modua eta epea, eta ohartaraziko da itzulketa aurreikusitako epean egiten ez bada premiamendu-bidez egingo dela. Eperik ezean, borondatez itzultzeko epea hilabetekoa dela ulertuko da, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.	1.La resolución deberá ser motivada, incluyendo expresamente la causa o causas que originan la obligación de reintegro, así como la cuantificación del importe de debe devolverse, y la forma y plazo para reintegrarlo, advirtiéndole de que, en el caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por vía de apremio. En defecto de plazo, se entenderá que el periodo voluntario de reintegro es de un mes, contado desde el día siguiente a la notificación de la misma.
2. Itzultzeko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hamabi hilabetekoa izango da, hasteko erabakiaren datatik zenbatzen hasita. Epe hori eten edo luzatu egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.	2. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de reintegro será de doce meses desde la fecha del acuerdo de iniciación. Dicho plazo podrá suspenderse o ampliarse de acuerdo con lo previsto en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas.

3. Ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik jakinarazi gabe amaitzen bada, iraungi egingo da prozedura. Hala ere, jarduketek aurrera jarraitu ahal izango dute amaitu arte, eta preskripzioa ez da etentzat joko epe hori amaitu arte egindako jarduketengatik.	3. Transcurrido el plazo máximo para resolver sin que se haya notificado la resolución expresa, se producirá la caducidad del procedimiento, sin perjuicio de continuar las actuaciones hasta su terminación y sin que se considere interrumpida la prescripción por las actuaciones realizadas hasta la finalización del citado plazo.
4. Itzultzeko prozeduraren ebazpenak emango dio amaiera administrazio-bideari.	4. La resolución del procedimiento de reintegro pondrá fin a la vía administrativa.
5. Arau-hauste administratibo izan daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.	5. Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador correspondiente.
79. artikulua. Itzultzearen arduradunei buruz	Artículo 79. De los responsables del reintegro
1. Itzultzeko prozedura pertsona fisikoen edo juridikoen kontra zuzenduko da, edo nortasun juridikoa ez daukaten pertsona fisiko edo juridikoen taldeetako kideen kontra, dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun agertzen direnak.	1. El procedimiento de reintegro se dirigirá contra las personas físicas o jurídicas, o contra los miembros de las agrupaciones de personas físicas o jurídicas que no tengan personalidad jurídica, que figuren como solicitantes o beneficiarios de la subvención.
2. Erantzukizun solidarioa, edo subsidiarioa erabakitzeke, dirulaguntza itzultzeko obligazioaren ondorioz, gehiturik berandutza interesak, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoak dioena egingo da.	2. Para la determinación de la responsabilidad solidaria, o subsidiaria, según proceda, de la obligación de reintegro de la subvención, más los correspondientes intereses de demora, se estará a lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
IV TITULUA	TÍTULO IV
DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK	INFRACCIONES Y SANCIONES EN MATERIA DE SUBVENCIONES
80. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak	Artículo 80. Infracciones y sanciones
Dirulaguntzen jardueraren ondoriozko zehapen-araubideari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan xedatutakoa beteko da.	En materia de régimen sancionador por razón de la actividad subvencional se estará a lo dispuesto en el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de subvenciones.
XEDAPEN IRAGANKORRA	DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Udal-ordenantza honen edukia ez zaie aplikatuko araudi horrek indarra hartu baino lehen onartu diren dirulaguntzen justifikazioarekin zerikusia duten gaiei.	No se aplicará el contenido de la presente Ordenanza municipal a las cuestiones relacionadas con la justificación de las subvenciones cuyo otorgamiento se hubiera aprobado con anterioridad a la entrada en vigor de dicha normativa.
Kasu guztietan, Ordenantza honetako III. Tituluan araututako itzultze-prozedurari buruzko artikulua aplikatuko dira.	En todo caso, sí serán de aplicación los artículos relativos al procedimiento de reintegro regulado en el Título III de la presente Ordenanza.
XEDAPEN GEHIGARRIA	DISPOSICIÓN ADICIONAL
Ordenantza honetan jasotzen ez den guztian aplikatuko zaio Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa eta indarrean dauden gainerako arauak.	En todo lo no previsto en la presente Ordenanza será de aplicación lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa vigente.
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	DISPOSICIÓN DEROGATORIA
Indargabe geratzen dira udal arau eta xedapen guztiak, Ordenantza honetan xedatutakoaren kontra egiten dutenari dagokionez.	Quedan derogadas todas las normas y disposiciones municipales en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente Ordenanza.
Indarrean daudela deklaritzen dira, Ordenantza honen kontra ez dagoen guztian, xedapen hauek:	Se declaran expresamente vigentes, en todo aquello que no contradiga ni se oponga a la presente Ordenanza, las siguientes disposiciones:
— Udalak eta bere Erakunde Autonomoak emandako dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko ordenantza (2004ko abuztuaren 10eko GAO 152 zbk.).	— Ordenanza reguladora de concesión y gestión de subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Arrasate y sus Organismos Autónomos (BOG 152 de fecha 10 de agosto de 2004).
AZKEN XEDAPENA	DISPOSICIÓN FINAL
Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.	La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.